

URTEKO KUDEAKETA ETA PLANGINTZA TXOSTENA

Onarpen data: 2025/03/12

www.ehu.eus

AURKIBIDEA

1. Kalitate politika berrikustea
2. Ikastegiko prozesuen mapa eta erantzukizunen taula
3. Ikastegiko titulazioak
4. Aurreko ikasturtean egindako ekintzak
5. Emaitzak
 - 5.1 Prozesukako gestioaren gako emaitzak
 - 5.2 Tituluen emaitza nagusiak
6. Europear Unibertsitateen ildo eta estandarren jarraipena
7. Hobekuntza ekintzen plana hurrengo ikasturterako

1. Kalitate politika berrikustea

HEFA Fakultatearen Kalitate Politika 2023-2025

[Fakultate Batzarrak 2023ko urriaren 24an onartua]

UPV/EHUko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia (HEFA) Fakultateak hurrengo bi urteetan inplementatu nahi duen Kalitate Politika zehaztuko dugu dokumentu honetan. Zehatzago esateko, HEFA Fakultateak, bere eskura dituen eskumenen eta baliabideen arabera, kalitatearen, hobekuntzaren eta berrikuntzaren kudeaketan lortu nahi lukeen horri buruz duen ikuspegia eta konpromisoa azalduko ditugu. Dekanotza Taldeak diseinatutako Kalitate Politika da, hasiera batean, baina, ondoren, HEFA Fakultateko Kalitate Batzordeak eta Fakultateko Batzarrak onartu zuen, 2023ko urriaren 18an eta 2023ko urriaren 24an, hurrenez hurren.

Unibertsitate ikasketak Europako Unibertsitate Eremura egokitzeko prozesuaren testuinguruan, UPV/EHUren Estatutuak[1] eta Plan Estrategikoa 2022-2025[2] dokumentuen irizpideekin eta ENQA (European Association for Quality Assurance in Higher Education) erakundearen Standards and guidelines for Quality Assurance in the European Higher Education Area (ESG)[3] dokumentu markoarekin bat eginik, adierazi nahi du hemen HEFA Fakultateak kalitatearen kudeaketarekin duen konpromisoa. Zehazki, honako zehaztapen hauetatik abiatzen da:

UPV/EHUren Estatutuen 1. artikulua:

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) zuzenbide publikoko erakundea da, gizartearen zerbitzura dagoena. Erakunde autonomiaduna da, nortasun eta ahalmen juridikoak dauzkana, bai eta ondare propioa ere. Goi mailako irakaskuntza eskaintzen du, bere eskumenen eremuan, honako hauen bitartez: irakaskuntza, ikerketa, ikasketa, kultura eta unibertsitate hedakuntza, eta bere jardueren oinarri diren kudeaketa prozesuak eta zerbitzuak. UPV/EHUk bere gain hartzen du zerbitzu horien kalitatea eta bikaintasuna bermatzeko konpromisoa. Bestalde, euskal gizartearen premiei erantzungo die, bai eta historiak eta aldaketa sozioekonomiko, politiko eta kulturalak ekarritakoei ere. Kultura eta zientzia unibertsalaren jakintza ere zabalduko du gizartean, eta euskara eta euskal kultura bultzatuko ditu bereziki. Era berean, ekonomia, gizarte eta ingurugiroaren jasangarritasunerako irizpideei jarraiki eramango ditu aurrera eguneroko zereginak.

UPV/EHUren Plan Estrategikoa 2022-2025:

Eginkizuna

UPV/EHU euskal unibertsitate publikoa da, eta konprometituta dago euskal kulturarekin, gizarte erronkekin eta garapen jasangarriarekin, prestakuntzaren, ikerketaren, ezagutzaren transferentziaren eta toki nahiz mundu mailako aliantzen bidez, jakintzaren adar guztietan.

Ikuspegia

- UPV/EHUk bere ikasleei ematen dien prestakuntza ikerketan eta pentsamendu kritikoan oinarrituta dago, metodo zientifikoa erabilia. Garapen jasangarriarekin inplikaturik dagoen prestakuntza da. Unibertsitateak aukera ematen die ikasleei beren buruak intelektuali eta giza ikuspegitik garatzeko, eta ingurunea eraldatzeko gaitasuna eskuratzen dute, modu etiko batean eta sormena erabilia, gero eta zorrotzagoa den ingurune aldakorrean.

- UPV/EHUk bere ikerketa ereduak indartu nahi du, gizarte, kultura, ekonomia eta ingurumen arloetako erronka berrietara orientatua eta erronka horiekin konprometitua, Diziplinaz gaindiko eta nazioarteko lankidetzak sustatuz, baita ingurumen sozioekonomikoarekiko lankidetzak ere, jakintzaren bidez gizarte eraldaketan lider izateko bokazioarekin.

- UPV/EHU, Euskadiko erakunde ikertzaile nagusia izanik, aliatu natural gisa identifikatzen da trantsizio digitalaren, trantsizio energetikoaren eta kohesio digitalaren desafioei aurre egiteko lurraldean garatzen diren I+G+b proiektuetan.

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2023/2024

• UPV/EHU bere inguruan sustraitutako unibertsitatea da, irekia eta iragazkorra, eta bi norabideko inpaktua eragiteko helburua du: erreferentzia eta identifikazio eredu izan nahi du euskal gizartearentzat.

ESG - Parte 1: Criterios y directrices para el aseguramiento interno de la calidad

Criterio 1.1 Política de aseguramiento de calidad. Las instituciones deben tener una política pública de aseguramiento de la calidad que forme parte de su gestión estratégica. Los grupos de interés internos deben desarrollar e implantar esta política mediante estructuras y procesos adecuados, implicando a los grupos de interés externos.

Aipatu irizpideak aintzat hartuta, HEFA Fakultatearen Kalitate Politikak eta, beraz, fakultateko eguneroko kalitatearen kudeaketak azpiko lau ildoek markatutako norabidea izango du:

1. Prestakuntza eta ikerketa.
2. Gizartearekiko erantzukizuna.
3. Hobekuntza eta garapena.
4. Pertsonak.

1. Prestakuntza eta ikerketa

Helburuak:

- HEFA Fakultatean eskaintzen diren gradu eta graduondokoetan prestatzea euskal gizartearen premietara egokituko diren profesional kualifikatuak eta pertsona arduratsuak.
- HEFAko graduen eta graduondokoaren eskaintza, nagusiki euskaraz izatea eta, aldi berean, hainbat esparrutan eleanitza, jasangarria eta kalitatezkoa.
- Ikerketaren eta irakaskuntzaren arteko harremana indartzea, areagotuz irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan metodologia berritzaileen erabilera.
- Etengabeko prestakuntza programak diseinatzea, bideak irekiz hainbat gizarte esparrutako prestakuntzaren eta ikerkuntzaren alorretan sortzen ari diren premia berriei eta eskaerei erantzuteko.
- Ikerketa proiektuak babestea eta HEFAn kultura zientifikoa sustatzea, batez ere, ikertzaile berriekin eta beren burua prestatzen ari diren pertsonekin.

2. Gizartearekiko erantzukizuna

Helburuak:

- Sustatzea garapen jasangarriaren, inklusiboaren, euskararen normalizazioaren eta gizarte eleanitzaren, eta aukera berdintasunaren aldeko politikak eta praktikak.
- Sare akademiko, sozial eta instituzionaletan parte hartzea eta gizarte eragileekiko harremanetan pausoak ematea aliantza politikak sistematizatze aldera.

3. Hobekuntza eta garapena

Helburuak:

- Fakultateko esparru guztietan (antolakuntzan, kudeaketan, irakaskuntzan eta ikerkuntzan) garatzea etengabeko hobekuntzarako edota berrikuntzarako ekimenak eta proposamenak.
- Horretarako, pertsona inplikatuak kalitatearen eta berrikuntzaren gaietan formazioa eskaintzea eta fakultateko kideen parte hartzea bultzatzea.
- Fakultateko titulazioetan berrikuntzaren eremuan lan egiteko esparruak sor daitezen, Dekanotza Taldeak egiturazko babesa eraikitzea.
- Azpiegitura fisikoak eta teknologikoak fakultatean gauzatzen ditugun hobekuntzetara eta berrikuntzetara etengabe egokitzea.
- HEFA osatzen duten bi eraikinen kudeaketa-sistema bateratzen jarraitzea eta, bereziki, bi eraikinen egiteko moldeetan kudeaketa-sistema bateratua integratzea.
- Kudeaketa administratiboa arinagoa, hurbilagoa eta gardenagoa izan dadin sustatzea, gobernantza eredu partehartzaileagoa garatuz.

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2023/2024

4. Pertsonak

Helburuak:

- Ikasleen, TEKAZELeko langileen eta irakasle/ikertzaileen beharrak eta espektatibak ezagutzea eta haiek asetzen saiatzea.
- HEFAko ikasleei eta irakasle/ikertzaileei beren ibilbide akademikoa garatzen laguntzea (ikaskuntzan, irakaskuntzan, ikerketan eta kudeaketan).
- TEKAZELeko langileei beren ibilbide profesionala garatzen laguntzea.

Dekanotza Taldeak fakultateko Kalitate Batzordeari eta Fakultateko Batzarrari helarazi dio Kalitate Politikaren adierazpen hau eta bere egin dute biek.

[1] https://www.ehu.eus/documents/3026289/3045926/Estatutos_UPV_EHU.pdf

[2] https://www.ehu.eus/documents/1769324/4925575/UPVEHU_PLAN+ESTRATEGIKOA_2022_2025.pdf/16556f80-4045-8abc-443d-4c41bdeb1df4?t=1655464452913

[3] https://www.enqa.eu/wp-content/uploads/filebase/esg/ESG%20in%20Spanish_by%20ANECA.pdf

Kalitate politikaren berrikuspena

2. Ikastegiko prozesuen mapa eta erantzukizunen taula

Ikastegi honek prozesukako gestioa bere sistemaren bidez egiten du, eta hurrengo prozesuen mapan ikusten da.:



Prozesuen araberako erantzukizunen taula

1.- PLANGINTZA

PROZEDURA	ARDURADUNA	PARTAIDEAK
1.1., Plangintza estrategikoa	Dekanoa	Dekanotza Taldea Kalitate Batzordea Fakultateko Batzarra
1.2., Urteko plangintza eta kudeaketa	Dekanoa	Prozesuen arduradunak Prozeduren arduradunak Fakultateko Batzarra
1.3., Dekanotza Taldearen aldaketa	Dekanoa	UPV/EHUko Kalitate Zerbitzua (KEIZ) Hobekuntzaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Dekanordetza (Euskararen eta kulturaren arloa) Dekanotza Taldea
1.4., Titulazioen plangintza eta akreditazioa	HEFA Iiko Dekanorde Koordinatzailea (Komunikazioaren arloa)	UPV/EHUko Gobernu Kontseilua Dekanoa Fakultateko Batzarra Graduen koordinaziorako Batzordea

2. Ikastegiko prozesuen mapa eta

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
 Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2023/2024

		Gradu-ondoen Batzordea (UPV/EHU) Campuseko Errektoreordetza Kalitate Batzordea Hobekuntzaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Dekanordetza (Euskararen eta kulturaren arloa) Graduen Batzordea (UPV/EHU)
1.5., Titulazioen etenaldia	Dekanoa	Fakultateko Batzarra Dekanotza Taldea Kalitate Agentziak Kalitate Batzordea

2.- IKASLEEI ARRETA ETA ORIENTAZIOA

PROZEDURA	ARDURADUNA	PARTAIDEAK
2.1., Ikasleak erakartzea	Ikasleen eta Orientazioaren arloko Dekanordetza	IIP Dekanotza Taldea Ikasleak Mugikortasunaren eta Kooperazio Praktiken arloko Dekanordetza
2.2., Sarrera profila eta matrikulazioa	Administrazio Burua	Administrazio Burua Dekanotza Taldea Idazkaritzako pertsonala
2.3., Matrikulatutako ikasleari arreta eta orientazioa	Ikasleen eta Orientazioaren arloko Dekanordetza	IIP Gradu ko koordinatzaileak Dekanotza Taldea Modulu/ Kurtso/ Minorretako koordinatzaileak
2.4., Irteera profila, lanbide orientazioa eta lan munduratzeara	Ikasleen eta Orientazioaren arloko Dekanordetza	Campuseko Errektoreordetza Hobekuntzaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Dekanordetza (Euskararen eta kulturaren arloa)

3.-KOORDINAZIOA ETA IRAKASKUNTZAREN GARAPENA

PROZEDURA	ARDURADUNA	PARTAIDEAK
3.1., Irakaskuntzaren koordinazioa eta garapena	HEFA IIko Dekanorde Koordinatzailea (Komunikazioaren arloa)	Gizarte Antropologia Masterreko Arduraduna Filosofia, Zientzia eta Balioak Masterreko Arduraduna Eleaniztasuna eta Hezkuntza Masterreko Arduraduna Gradu ko koordinatzaileak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterreko Arduraduna Gizarte eta Hezkuntzako Eremuen Ikerketa Masterreko Arduraduna Modulu/ Kurtso/ Minorretako koordinatzaileak Hobekuntzaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Dekanordetza (Euskararen eta kulturaren arloa) Masterren Koordinatzailea
3.2., Irakaskuntzaren antolaketa (Antolaketa Akademikoa)	Graduondokoen eta Berrikuntzaren arloko Dekanordetza	Akademia Batzordeko Lehendakaria (Masterrak) Batzorde Akademikoa (Masterrak) Bulegoko Buruzagitza Irakasleen Plantilla Zuzendaritza (UPV/EHU) HEFA-Ieko Akademi Antolakuntzarako eta Ikasleen Dekanordea

2. Ikastegiko prozesuen mapa eta

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2023/2024

		Administrazio Burua Fakultateko Batzarra Sailak
3.3., Derrigorrezko kanpo praktikak	Practicumaren eta GRALaren HEFA IIko Dekanordetza	Instruktoreak Zentruko Teknikaria HEFA-Ieko Practicum eta GRAL Dekanordea Sailak Practicumaren eta GRALaren HEFA IIko Dekanordetza Irakaslana Ebaluatze Zerbitzua (IEZ) (UPV/EHU) Practicum Batzordea Tutoreak
3.4., Borondatezko kanpo praktikak	Practicumaren eta GRALaren HEFA Ieko Dekanordetza	Sailak Zentruko Teknikaria Tutoreak Practicum Batzordea Practicumaren eta GRALaren HEFA IIko Dekanordetza Instruktoreak
3.5., Mugikortasun programak	Mugikortasunaren eta Kooperazio Praktiken arloko Dekanordetza	Beste Unibertsitateak Koordinazioaren eta Nazioarteko Harreman aloko errektoreordea Mugikortasunaren eta Kooperazio Praktiken arloko Dekanordetza
3.6., Gradu/ Master Amaierako Lanak	Practicumaren eta GRALaren HEFA Ieko Dekanordetza	Gizarte Antropologia Masterreko Arduraduna GrAL Batzordea GrAL epaimahaiak Practicumaren eta GRALaren HEFA Ieko Dekanordetza Gizarte eta Hezkuntzako Eremuen Ikerketa Masterreko Arduraduna Sailak Filosofia, Zientzia eta Balioak Masterreko Arduraduna Eleaniztasuna eta Hezkuntza Masterreko Arduraduna GrAL koordinatzaileak Practicumaren eta GRALaren HEFA IIko Dekanordetza Akademia Antolakuntzako Dekanordetza GrAL Zuzendariak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterreko MAL koordinatzailea IIP

4.- GIZA BALIABIDE ETA ZERBITZUEN KUDEAKETA

PROZEDURA	ARDURADUNA	PARTAIIDEAK
4.1., IIP/AZPren kudeaketa	Dekanoa	Dekanoa Sailak AZP Gerenteordetza (UPV/EHU) Irakasle- ikertzaileen arloko errektoreordea Fakultateko Batzarra
4.2., IIP/AZPren formakuntza	Dekanoa	Langileen Plangintza eta Prestakuntza Kabinetea (UPV/EHU) Administrazio Burua

2. Ikastegiko prozesuen mapa eta

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
 Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2023/2024

		Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzua (HELAZ) (UPV/EHU)
4.3., Kredituen aitortpena eta transferentzia	Akademia Antolakuntzako Dekanordetza	Idazkaritzako pertsonala Akademi Antolakuntza eta Baliozkotze Batzordea Sailak Bulegoko Buruzagitza
4.4., Beken, ziurtagirien eta tituluen kudeaketa	Administrazio Burua	UPV/EHUko Beka/tituluen bulegoa Bulegoko Buruzagitza Idazkaritzako pertsonala
4.5., Aurrekontuaren kudeaketa	Administrazio Burua	Administrazio Burua Campuseko Gerenteordetza Dekanoa Fakultateko Batzarra
4.6., Baliabide materialen kudeaketa	Administrazio Burua	Dekanoa Administrazio Burua Mantentze-lanetarako kanpoko pertsonala
4.7., Zerbitzuen kudeaketa	Administrazio Burua	UPV/EHUko Zerbitzu Orokorrak Administrazio Burua

5.- EBALUAZIOA ETA HOBEKUNTZA

PROZEDURA	ARDURADUNA	PARTAIIDEAK
5.1., Titulazioen eta Kudeaketa Sistemaren ebaluazioa eta hobekuntza	Hobekuntzaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Dekanordetza (Euskararen eta kulturaren arloa)	UPV/EHUko Kalitate Zerbitzua (KEIZ) Gizarte Hezkuntza Graduko Koordinatzailea Prozesuen arduradunak Gizarte Antropologia Graduko Koordinatzailea Haur Hezkuntza Graduko Koordinatzailea Fakultateko Batzarra Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterreko Arduraduna Graduko koordinatzaileak Kalitate Batzordea Eleaniztasuna eta Hezkuntza Masterreko Arduraduna Gizarte eta Hezkuntzako Eremuen Ikerketa Masterreko Arduraduna Prozeduren arduradunak Gizarte Antropologia Masterreko Arduraduna Filosofia, Zientzia eta Balioak Masterreko Arduraduna Dekanotza Taldea Lehen Hezkuntza Graduko Koordinatzailea Filosofia Graduko Koordinatzailea Zentruko Teknikaria Pedagogia Graduko Koordinatzailea Hobekuntzaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Dekanordetza (Euskararen eta kulturaren arloa) Administrazio Burua
5.2., Iradokizunak, Kexak eta Erreklamazioak	Idazkari Akademikoa eta HEFA Ieko Koordinatzailea	Administrazio Burua Dekanotza Taldea
5.3., IIPren irakaskuntzaren ebaluazioa	Hobekuntzaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Dekanordetza (Euskararen eta kulturaren arloa)	Kalitate Batzordea Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzua (IEZ) (UPV/EHU)

2. Ikastegiko prozesuen mapa eta

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2023/2024

		Irakaslana Ebaluatze Unibertsitateko Batzordea (IEUB) Hobekuntzaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Dekanordetza (Euskararen eta kulturaren arloa)
5.4., Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren (KBBS) ezarpenaren barne ebaluazioa	Hobekuntzaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Dekanordetza (Euskararen eta kulturaren arloa)	Hobekuntzaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Dekanordetza (Euskararen eta kulturaren arloa) Prozeduren arduradunak Administrazio Burua Dekanotza Taldea Prozesuen arduradunak Kalitate Batzordea UPV/EHuko Kalitate Zerbitzua (KEIZ)

6.- KOMUNIKAZIOA ETA GIZARTE ERANTZUNKIZUNA

PROZEDURA	ARDURADUNA	PARTAIIDEAK
6.1., Komunikazioa eta gizarte proiektzioa	HEFA IIko Dekanorde Koordinatzailea (Komunikazioaren arloa)	Komunikazio ekintza desberdinen arduradunak Zentruko Teknikaria Prozeduren arduradunak Sailak Dekanotza Taldea Multimedia Sistemien Teknikari Espezialista Prozesuen arduradunak Hobekuntzaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Dekanordetza (Euskararen eta kulturaren arloa) IIP
6.2., Gizarte erantzukizuna	Hobekuntzaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Dekanordetza (Euskararen eta kulturaren arloa)	IIP Pedagogia Graduoko Koordinatzailea Prozeduren arduradunak Hobekuntzaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Dekanordetza (Euskararen eta kulturaren arloa) Graduondokoen eta Berrikuntzaren arloko Dekanordetza Filosofia Graduoko Koordinatzailea Gizarte Antropologia Graduoko Koordinatzailea Gizarte Antropologia Masterreko Arduraduna Filosofia, Zientzia eta Balioak Masterreko Arduraduna Ikasleen eta enplegarritasunaren arloko errektoreordea Sailak Haur Hezkuntza Graduoko Koordinatzailea Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko errektoreordea Gizarte Hezkuntza Graduoko Koordinatzailea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterreko Arduraduna Eleaniztasuna eta Hezkuntza Masterreko Arduraduna Gizarte eta Hezkuntzako Eremuen Ikerketa Masterreko Arduraduna Prozesuen arduradunak Lehen Hezkuntza Graduoko Koordinatzailea Dekanotza Taldea

3. Ikastegiko titulazioak

Ikastegi hau jarraian datozen tituluak emateaz arduratzen da:

GRADUAK

RUCT kodea : 2501639

Titulazio kodea: GINFA

Graduaren izena: Haur Hezkuntzako Gradua / Grado en Educación Infantil

URL : es: <https://www.ehu.eus/es/web/graduak/grado-educacion-infantil-gipuzkoa>
eu: <https://www.ehu.eus/eu/web/graduak/haur-hezkuntzako-gradua-gipuzkoa>

RUCT kodea : 2501469

Titulazio kodea: GANTR

Graduaren izena: Gizarte Antropologiako Gradua / Grado en Antropología Social

URL : es: <https://www.ehu.eus/es/web/graduak/grado-antropologia-social>
eu: <https://www.ehu.eus/eu/web/graduak/gizarte-antropologiako-gradua>

RUCT kodea : 2501640

Titulazio kodea: GPRIM

Graduaren izena: Lehen Hezkuntzako Gradua / Grado en Educación Primaria

URL : es: <https://www.ehu.eus/es/web/graduak/grado-educacion-primaria-gipuzkoa>
eu: <https://www.ehu.eus/eu/web/graduak/lehen-hezkuntzako-gradua-gipuzkoa>

RUCT kodea : 2502024

Titulazio kodea: GESOC

Graduaren izena: Gizarte Hezkuntzako Gradua / Grado en Educación Social

URL : es: <https://www.ehu.eus/es/web/graduak/grado-educacion-social-gipuzkoa>
eu: <https://www.ehu.eus/eu/web/graduak/gizarte-hezkuntzako-gradua-gipuzkoa>

RUCT kodea : 2501475

Titulazio kodea: GPEDA

Graduaren izena: Pedagogiako Gradua / Grado en Pedagogía

URL : es: <https://www.ehu.eus/es/web/graduak/grado-pedagogia>
eu: <https://www.ehu.eus/eu/web/graduak/pedagogiako-gradua>

RUCT kodea : 7001257

Titulazio kodea: GBLHH

Graduaren izena: Gradu Bikoitza: Lehen Hezkuntza eta Haur Hezkuntza / Doble Grado en Educación Primaria y Educación Infantil

URL : es: <https://www.ehu.eus/es/web/graduak/doble-grado-educacion-primaria-infantil>
eu: <https://www.ehu.eus/eu/web/graduak/lehen-eta-haur-hezkuntzako-gradu-bikoitza>

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2023/2024

RUCT kodea : 2501394

Titulazio kodea: GFILO

Graduaren izena: Filosofiako Gradua / Grado en Filosofía

URL : es: <https://www.ehu.eus/es/web/graduak/grado-filosofia>

eu: <https://www.ehu.eus/eu/web/graduak/filosofiako-gradua>

MASTERRAK

RUCT kodea : 4313036

Titulazio kodea: INASE

Masterraren izena: Gizarte eta Hezkuntzako Eremuen Ikerketa Unibertsitate Masterra / Máster Universitario en Investigación en Ámbitos Socioeducativos

URL : es: <https://www.ehu.eus/es/web/master/master-investigacion-socioeducativa>

eu: <https://www.ehu.eus/eu/web/master/gizarte-hezkuntzako-ikerketa-masterra>

RUCT kodea : 4314540

Titulazio kodea: ANTISO

Masterraren izena: Gizarte Antropologia Unibertsitate Masterra / Máster Universitario en Antropología Social

URL : es: <https://www.ehu.eus/es/web/master/master-antropologia-social>

eu: <https://www.ehu.eus/eu/web/master/gizarte-antropologia-masterra>

RUCT kodea : 4311844

Titulazio kodea: PROSE

Masterraren izena: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntzaren Unibertsitate Masterra / Máster Universitario en Formación del Profesorado de Educación Secundaria Obligatoria y Bachillerato, Formación Profesional y Enseñanzas de Idiomas

URL : es:

eu:

RUCT kodea : 4313028

Titulazio kodea: MULED

Masterraren izena: Eleaniztasuna eta Hezkuntza Unibertsitate Masterra / Máster Universitario en Multilingüismo y Educación

URL : es: <https://www.ehu.eus/es/web/master/master-multilinguismo-educacion>

eu: <https://www.ehu.eus/eu/web/master/eleaniztasuna-hezkuntza-masterra>

RUCT kodea : 4311636

Titulazio kodea: FICIV

Masterraren izena: Filosofia, Zientzia eta Balioak Unibertsitate Masterra / Máster Universitario en Filosofía, Ciencia y Valores

URL : es: <https://www.ehu.eus/es/web/master/master-filosofia-ciencia-valores>

eu: <https://www.ehu.eus/eu/web/master/filosofia-zientzia-balioak-masterra>

RUCT kodea : 4318444

Titulazio kodea: FICST

Masterraren izena: Filosofia: Zientzia, Gizartea, Teknologia Unibertsitate Masterra / Máster Universitario en Filosofía: Ciencia, Sociedad, Tecnología

URL : es: <https://www.ehu.eus/es/web/master/master-filosofia-ciencia-sociedad-tecnologia>

eu: <https://www.ehu.eus/eu/web/master/filosofia-zientzia-gizartea-teknologia-masterra>

3. Ikastegiko titulazioak

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2023/2024

Ikastegi hau jarraian datozen tituluak emateaz arduratuko da datorren urtean:

GRADUAK

MASTERRAK

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

4. Aurreko ikasturtean egindako ekintzak

1.- PLANGINTZA

1.2., Urteko plangintza eta kudeaketa

Ekintza kodea: 22-HEFA-MES-56

Dekanotza Taldearen Berrantolaketa

Dekanotzako kideen kopurua aldatu egin da abenduan onartutako izendapenaren ondorioz. Honek dekanotza taldearen barruan funtzioen berrikuspen bat suposatu du eta karguen berrantolaketa bat. Aldeketa hauek formalki egin badira ere fakultateak duen egunorokotasunean islada izateko denbora beharko da prozesua lagunduko duten zenbait erabaki ere hartu beharko dira. Ekintza honen bitartez kalitatea sistemari lotuako zenbait erbaaki ere hartu beharko dira.

Arduradun-postua: Decano/a

Jatorria: Aurreko ikasturteko hobekuntza-ekintzen planetik eratorriak

Itxiera data: 2024/01/16

Hartutako neurriak

Taldeekideen artean eta fakultateko beste interes taldeekiko komunikazioa landu behar izan da kide bakoitzaren funtzioak ezagunak izan daitezen eta bakoitza bere arduraren baitan aritu dadin

PEC :	X	RES :	MES	X	MOT	RET :	MET:
-------	---	-------	-----	---	-----	-------	------

1.4., Titulazioen plangintza eta akreditazioa

Ekintza kodea: 23-HEFA-MOT-34

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko (HEFA) titulazioak 822/2021 Dekretuko ikasketa-eremuekin lotzea

UPV/EHUKo Graduaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko Errektoreordetzak eskatu dio HEFAko Dekanotza Taldeari funtsezkoa ez den aldaketa gisa egitea 822/2021 Dekretua Espainiako Estatuan indarrean jartzeak unibertsitateetako titulazioei eskatu dien egokitzapen bat: hots, titulazioak, bai graduak eta bai graduondokoak, aipatutako dekretuko ikasketa-eremuekin lotzea. Bide horretan, Gestio Akademikoko Zerbitzuak proposamen bat bidali zion HEFAko Dekanotza Taldeari HEFAko titulazioak eta ikasketa-eremuak lotzen zituen. Graduaren kasuan, titulazioa bera, ikasketa eremu batekin lotzeaz gainera, Oinarrizko Prestakuntzako irakasgaiak ere lotu behar izan dira ikasketa-eremuok.

Arduradun-postua: Vicedecano de Desarrollo y Responsabilidad Social

Jatorria: Besteak

Itxiera data: 2024/03/14

Hartutako neurriak

HEFAko graduetako eta masterretako arduradunek, Gestio Akademikoko Zerbitzuaren proposamena aztertu ondoren, onartu egin zuten hark proposatutakoa. Salbuespen bakarra izan genuen fakultatean, Gizarte eta Hezkuntzako Eremuen Ikerketa Masterrarena, zeinak aldaketa bat eskatu zion Hobekuntzarako eta Gizarte Erantzunerako Dekanordeari. HEFAko Dekanotza Taldeak Kalitate Batzordeari eta Fakultateko Batzarrari eskatuko dio titulazioen eta ikasketa-eremuen artean titulazioek onartu duten lotura edo eskatu duten aldaketa onar ditzan.

Kalitate Batzordearen onarpena: 2024-03-05.

Fakultate Batzarraren onarpena: 2024-03-13.

*Ezin izan dugu Fakultate Batzarrak onartu zuen dokumentua atxiki. Akatsa gertatzen zen aldiro igotzerakoan.

Titulazioak:

GINFA GANTR GPRIM GESOC GPEDA GBLHH GFILO FICST INASE MULED ANTISO PROSE FICIV

PEC :	RES :	MES	MOT	X	RET :	MET:
-------	-------	-----	-----	---	-------	------

Ekintza kodea: 22-HEFA-MET-14

LH/HH Gradu Bikoitzean eta Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza graduetan EHUK sustatutako Nazioarteko Sakontze Aipamena lortzeko prozedura abiatzea

UPV/EHUKo tituludunei eskaintzen zaien aukera bat da nazioarteko profila aitortzeko tituluaren gehigarri europarrean (TGE)

Arduradun-postua: Vicedecano Coordinador de HEFA-II (Comunicación)

Jatorria: Aurreko ikasturteko hobekuntza-ekintzen planetik eratorriak

Itxiera data: 2024/07/31

Hartutako neurriak

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

1.4., Titulazioen plangintza eta akreditazioa

Inplikaturako graduak aztertu eta egoera ikusi. Ondoren sailekin aukerak eta prozedurak aztertu eta, posible balitz, proposamena eraiki.

Lehen urratsa, Lehen Hezkuntza Graduan emango da.

2023ko ekainaren 15ean Lehen Hezkuntzako Nazioartekotze-aipamena ibilbideaaren UNIBASQen aldeko txostena jaso da eta, ondorioz, orain Gradu Bikoitzean eta Haur Hezkuntzan ditugun aukerak eta hauek garatzeko eman daitezkeen urratsak aztertuko dira.

Graduko Errektoreordetzarekin izandako bileretan ondorioztatu da, momentuz, ez zaiola Nazioarteko Sakontze Aipamenari helduko HH/LH Gradu Bikoitzean eta aurrerago abiatuko dela, berriz ere, hausnarketa Graduetako Errektorordetzako kideekin batera.

Titulazioak:

GINFA GPRIM

PEC :	X	RES :	MES	MOT	RET :	MET:	X
-------	---	-------	-----	-----	-------	------	---

2.- IKASLEEI ARRETA ETA ORIENTAZIOA

2.1., Ikasleak erakartzea

Ekintza kodea: 20-MANTSO-MET-20

Ikasleak erakarri

Masterrean izena eman dezaten ikasle potentzialak erakartzeko ekimenak abiarazi

Arduradun-postua: PDI

Jatorria:Aurreko ikasturteko hobekuntza-ekintzen planetik eratorriak

Itxiera data: 2024/02/23

Hartutako neurriak

Master Eguneko formulatik haraindi joan. Aurreko ikasturtetako esperientziak erakutsi digu Master Egunetara jende gutxi hurbiltzen dela, eta hurbildu diren horietarik inork ez du ondoren izena eman gure masterrean.

Fakultateak antolatu duen Master egunean parte hartu genuen bai eta EHUK antolatzen duen Master Weekee 2023ko martxoan.

Iazko ikasturtean egin moduan, zzeneko harremana indartu eta EHUKo antropologia ikasleak erakarri, antropologia graduko 4. mailako ikasleei masterra aurkeztuz.

Masterrari buruzko zabalkunde kanpainari ekin iraila haseran plaza libreak geratuz gero

Titulazioak:

ANTSO

PEC :	X	RES :	MES	MOT	RET :	MET:	X
-------	---	-------	-----	-----	-------	------	---

Ekintza kodea: 22-MANTSO-MET-26

Master liburuxkak berrikusi

Webgunean eskegita dauden Masterraren liburuxkak berrikusi, euskarazko eta gaztelerazko bertsioak aztertu, orraztu eta osatu

Arduradun-postua: PDI

Jatorria:Aurreko ikasturteko hobekuntza-ekintzen planetik eratorriak

Itxiera data: 2024/02/15

Hartutako neurriak

Masterrera ikasleak erakartzeko estrategien baitako ekintza; informazio eguneratua dagoela bermatu.

Titulazioak:

ANTSO

PEC :	X	RES :	MES	MOT	RET :	MET:	X
-------	---	-------	-----	-----	-------	------	---

2.2., Sarrera profila eta matrikulazioa

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2023/2024

2.2., Sarrera profila eta matrikulazioa

Ekintza kodea: 22-HEFA-MES-59

Graduetan sartzeko 2024-25erako haztapen parametro berriak erabaki

LOMLOE legearen ezarpenaren ondorioz, unibertsitatean sartzeko prozesuan zenbait egokitzapen eta moldaketa egin behar dira graduetako haztapen koefizienteetan eta, batzuetan, gradu bera duten fakultateen artean adostuta. Epe laburrean hartu beharreko erabakia izango da

Arduradun-postua: Equipo Decanal

Jatorria: Besteak

Itxiera data: 2024/02/01

Hartutako neurriak

Gradu bakoitzeko koordinatzaileak, bertako irakasleekin eta, hala dagokionean, beste fakultateetan gradu bera ematen dutenekin adostuz, proposamen bat egingo dute, baldintza berriak kontuan hartuz, 24-25 ikasturtetik aurrera aplikatu dadin

PEC :

RES :

MES

X

MOT

RET :

MET:

Ekintza kodea: 22-HEFA-MES-42

Matrikula prozesuan: Informatika gelan.

2021ko uztailan, bateraketa ondoren konprobatu genuen, ez zela posible nahi dugun aurrez aurre arreta egin ikasleei. Gainera aurturten martxan jarri da aukera matrikula on line egitea ere 1. mailan. Matrikula prozesua aztertu eta gero, erabaki dugu hobe dela informatika gelan matrikula egitea (7 titulazioa izango dira gradu kasuetan eta Masterreko kasuetan 5 izango dira)

Arduradun-postua: Jefa de Administración

Jatorria: Besteak

Itxiera data: 2023/09/15

Hartutako neurriak

Gradu eta Masterreko arduradunei komuniakatu

Prestatu informatika gelak prozedura honetarako: inprimagailua jarri, telefonoa, eta ekipoak errebesitatu.

PEC :

RES :

MES

X

MOT

RET :

MET:

Ekintza kodea: 23-MPROSE-MOT-11

Ratificar el sistema de baremación utilizado para determinar el número de admitidos en las especialidades del Máster de Formación del Profesorado

En diciembre de 2021 se modificó en la aplicación UNIKUDE el sistema de baremación utilizado para acceder a la especialidad del Máster de Formación del Profesorado.

Actualmente, la información que aparece en la página Web de Posgrado no se ajusta a la información incluida en UNIKUDE. Por ello, la tramitación se volverá a realizar.

Los requisitos del Máster de Formación del Profesorado serán los mismos: título universitario (grado o equivalente), lengua extranjera B1 y Euskera B2. No obstante, se determinará el número de admitidos por especialidad en función de los siguientes criterios:

- Titulación apta para el acceso a cada especialidad: no se admitirán títulos no aptos para cada especialidad (especificados en la memoria del Máster).

- Nota media del expediente académico de 0 a 10.

Arduradun-postua: Equipo Decanal

Jatorria: Aurreko ikasturteko hobekuntza-ekintzen planetik eratorriak

Itxiera data: 2024/02/20

Hartutako neurriak

Ha sido aprobada por la comisión de posgrado.

Titulazioak:

PROSE

PEC :

X

RES :

MES

MOT

X

RET :

MET:

Ekintza kodea: 21-MPROSE-MET-123

Análisis para corregir el acceso dependiendo de la nota media del grado.

Existen diferencias entre las notas medias de cada grado. Se ha estudiado la posibilidad de ponderar la nota media del alumnado dependiendo del grado de origen.

Para ello, se han analizado las notas medias de las diferentes titulaciones que dan acceso al Máster correspondientes a los últimos 4 años.

Se han realizado reuniones con otros servicios de la universidad que utilizan sistemas de ponderación para corregir las diferencias de medias entre grados.

Se han puesto encima de la mesa diferentes propuestas y se ha consultado a los servicios jurídicos de la universidad.

Se han detectado problemas para proponer un sistema de ponderación que sea aplicable al alumnado no titulado en la UPV-EHU.

Por el momento, se ha desestimado cualquier posibilidad de cambio debido a esta causa.

Arduradun-postua: Equipo Decanal

Jatorria: Besteak

Itxiera data: 2024/02/19

"4. Aurreko ikasturtean egindako ekintzak"

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2023/2024

2.2., Sarrera profila eta matrikulazioa

Hartutako neurriak

Por el momento, se ha desestimado cualquier posibilidad de cambio debido a esta causa porque se han detectado problemas para proponer un sistema de ponderación que sea aplicable al alumnado no titulado en la UPV-EHU.

Titulazioak:
PROSE

PEC :	RES :	MES	MOT	RET :	MET: X
-------	-------	-----	-----	-------	--------

Ekintza kodea: 23-MANTSO-MET-32

Masterreko sarbide profila egokitu

Masterreko sarbidea duten titulazioen berrikuspena

Arduradun-postua: Equipo Decanal

Jatorria: Aurreko ikasturteko hobekuntza-ekintzen planetik eratorriak

Itxiera data: 2023/10/24

Hartutako neurriak

Master honetako Batzorde Akademikoak 2023ko Uztailaren 11ean eginiko bileran, masterrean izena eman nahi duten ikasleen perfila aintzat harturik eta matrikulazio prozedura erraztu eta azkartu asmoz, Antropologia masterrean sarbidea izango duten titulazioak berrikusi ditu.

Titulazioak:
ANTSO

PEC : X	RES :	MES	MOT	RET :	MET: X
---------	-------	-----	-----	-------	--------

Ekintza kodea: 22-MANTSO-MET-67

Sarbide perfilaren egokitzapena

Antropologia masterrean sartzeko titulazioak

Arduradun-postua: Equipo Decanal

Jatorria: Aurreko ikasturteko hobekuntza-ekintzen planetik eratorriak

Itxiera data: 2023/10/24

Hartutako neurriak

Master honetako Batzorde Akademikoak 2023ko Uztailaren 11ean eginiko bileran, masterrean izena eman nahi duten ikasleen perfila aintzat harturik eta matrikulazio prozedura erraztu eta azkartu asmoz, Antropologia masterrean sarbidea izango duten titulazioak berrikusi ditu. 2023ko urriaren 24an ospatu zen Fakultate Batzarra aldaketa onartu zuen

Titulazioak:
ANTSO

PEC : X	RES :	MES	MOT	RET :	MET: X
---------	-------	-----	-----	-------	--------

2.4., Irteera profila, lanbide orientazioa eta lan munduratzeari

Ekintza kodea: 22-GFILOS-MET-23

Graduaren irteera profesionalak

Graduaren webgunean zein irteera profesionalerako buruzko informazio-liburuxketan jasotako graduaren irteera profesionalen inguruko informazioa egokitu behar da.

Graduaren webgunean zein irteera profesionalerako buruzko informazio-liburuxketan jasotako informazioaren egokitasunari buruzko eztabaida bat planteatu da graduaren koordinazio bileran. Besteak beste honakoak aipatu dira gaiaren inguruan:

a) ¿Etika, bioetika eta gizarte erantzukizuneko batzordeak? informazio liburuxka edo webgunean aipatzea ez dela guztiz egokia adierazten da, orain arte, behintzat, jardura horiek ez baitute kontrapartida ekonomikorik eta, hortaz, ezin dira gaitz bidez profesionalizatzen hartu.

b) Informazio horien guztien bitartez, Filosofiako egresatuen errealitate profesionala bildu eta islatu nahi da; eskura ditugun datuen arabera, ikasleen heren batek irakaskuntzan eta ikerketan lan egiten dute, eta bi herenek, berriz, kultura kudeaketarekin, aholkularitzarekin, edo negozio txikiekin eta abarrekin lotutako lanpostuetan lan egiten dute.

c) Informazio horretan gure graduaren hiru irteera nagusiak aipatu behar direla erabaki da: irakaskuntza, ikerketa eta balio anitzeko profila. Azkeneko profilari dagokionez, gaur egun webgunean eta liburuxketan aipatzen diren gainerako jarduerak sar litezke, baina guztiz egokiak ez direnak kenduz.

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

2.4., Irteera profila, lanbide orientazioa eta lan munduratzeari buruz

Arduradun-postua: Vicedecanato de Desarrollo y Responsabilidad Social

Jatorria: Besteak

Itxiera data: 2024/02/23

Hartutako neurriak

Liburuxka berrietan eta webgunean "irteera profesionalak" atala eguneratu dela ikusi berri dugu. "Etika, bioetika eta gizarte erantzukizuneko batzordeak" ez dira jadanik azaltzen. Beraz, hobekuntza gauzatu dela esan daiteke.

Titulazioak:
GFILO

PEC :	RES :	MES	MOT	RET :	MET: X
-------	-------	-----	-----	-------	--------

3.-KOORDINAZIOA ETA IRAKASKUNTZAREN GARAPENA

3.1., Irakaskuntzaren koordinazioa eta garapena

Ekintza kodea: 19-MINASE-MOT-36

Mejora de la coordinación con el profesorado, el alumnado y el PAS

La Comisión Académica cree que esta coordinación es esencial para el logro de los objetivos anuales de mejora del Máster. Para ello se organizan varias reuniones anuales con el profesorado en las que se plantean los retos y objetivos a alcanzar cada año, la revisión del proceso de los mismos y el grado de ejecución final. Con los estudiantes y el PAS se mantiene una relación continua que permite estar al tanto de las incidencias que se producen y resolverlas a la mayor brevedad.

Durante el curso 2022-23 se han realizado varias reuniones de seguimiento entre el profesorado para analizar el funcionamiento del máster, así como para hacer un trabajo coordinado coherente en los dos periodos de semi-presencialidad. Se seguirá trabajando en esta dirección en el curso 2023-2024

Arduradun-postua: Coordinadora de Másteres

Jatorria: Aurreko ikasturteko hobekuntza-ekintzen planetik eratorriak

Itxiera data: 2024/07/31

Hartutako neurriak

Establecer reuniones de seguimiento con el profesorado a las que también acude la secretaria administrativa. Asimismo, la gestión del máster desde el centro es una situación nueva que requiere nuevos modos de trabajo que en estas fechas iniciales hay que cuidar.

Durante el curso 2022-23 se han realizado varias reuniones de seguimiento entre el profesorado para analizar el funcionamiento del máster, así como para hacer un trabajo coordinado coherente en los dos periodos de semi-presencialidad. Se seguirá trabajando en esta dirección en el curso 2023-2024

Titulazioak:
INASE

PEC :	X	RES :	MES	MOT X	RET :	MET:
-------	---	-------	-----	-------	-------	------

Ekintza kodea: 21-GESOCI-RET-20

Euskadiko Autonomi Erkidegoko Gizarte Hezitzaileen Elkargoarekin batera Unibertsitateak-Elkargoa Batzordearekin jarraitzea

EAEko Gizarte Hezitzaileen Elkargoarekin, Deustuko Unibertsitateko Gizarte Hezkuntzako Graduarekin eta Bizkaiko Campuseko Gizarte Hezkuntza Graduarekin batera osatzen dugun Batzorde honek lanean jarraitu du 2023-24 ikasturtean ere.

Arduradun-postua: Coordinadores de Grado

Jatorria: Agentzien kanpo txostenak

Itxiera data: 2024/07/31

Hartutako neurriak

EAEko Gizarte Hezitzaileen Elkargoarekin, Deustuko Unibertsitateko Gizarte Hezkuntzako Graduarekin eta Bizkaiko Campuseko Gizarte Hezkuntza Graduarekin batera osatzen dugun Batzorde honek lanean jarraitu du 2022-23 ikasturtean ere, helburu nagusia izanik gizarte hezitzaile profesioaren jarraipena eta indartzea.

Titulazioak:
GESOC

PEC :	RES :	MES	MOT	RET : X	MET:
-------	-------	-----	-----	---------	------

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2023/2024

3.1., Irakaskuntzaren koordinazioa eta garapena

Ekintza kodea: 20-GANTRO-RET-80

Interes talde guztiei gogobetetze-inkesta espezifikoa sistematikoki egitea

Interes talde guztiei, titulu honetarako, gogobetetze-inkesta espezifikoa sistematikoki egitea gomendatzen da

Arduradun-postua: Coordinadores de Grado

Jatorria: Agentzien kanpo txostenak

Itxiera data: 2024/01/31

Hartutako neurriak

Gratu-Batzordean eta bertan parte hartzen duten maila bakoitzeko koordinatzaileen bitartez sistematizazio hori indartzen saiatuko gara.

Lauhileko bakoitzean maila bakoitzeko talde bakoitzarekin, ikasgai bakoitzaren ebaluazioaz gain, ebaluazio orokorra egiten du maila-koordinatzaileak. Batetik, idatzizko galdetegi bat pasatzen zaie ikasle guztiei. Bestetik, ahozko ebaluazio kualitatiboa egiten da. Ondoren, lauhileko bakoitzaren ebaluaketak egin ostean, gradu batzordean partekatzen dira, arloko gainontzeko irakasleak ere bilera horretara gonbidatuz.

Titulazioak:

GANTR

PEC :	RES :	MES	MOT	RET : X	MET:
-------	-------	-----	-----	---------	------

Ekintza kodea: 20-GANTRO-RET-62

Irakasleen eta sailen arteko koordinazioa hobetzeko azterketa

Lan-karga handiko pilaketek denboran eragiten dituzten arazoak konpontzeko, irakasleen eta sailen arteko koordinazioa hobetzeko azterketa bat egitea gomendatzen da.

Arduradun-postua: Coordinadores de Grado

Jatorria: Agentzien kanpo txostenak

Itxiera data: 2024/06/30

Hartutako neurriak

Urtetik urtera ebaluazioetan jorratzen dugun gaia da. Gratu-Batzordean eta bertan parte hartzen duten maila bakoitzeko koordinatzaileen bitartez ikasgaien arteko koordinazioa hobetzeko proposamenak egin dira.

2022/2023an lan zamak neurtzeko fitxa berri bat sortu dugu, maila bakoitzaren baitan irakasleen artean baliatuko dena.

2024/2025 ikasturtean ere baliatzen ari gara fitxa horiek, eta baliagarria ikusten da hemendik aurrera horiek urtero modu sistematikoan erabiltzen jarraitzea.

Titulazioak:

GANTR

PEC :	RES :	MES	MOT	RET : X	MET:
-------	-------	-----	-----	---------	------

Ekintza kodea: 15-GESOCI-RET-2

Unibaso Gomendioa: Interes taldeen asebetetzea

Incluir información acerca de la satisfacción de los colectivos de interés para el título de forma accesible

Arduradun-postua: Coordinadores de Grado

Jatorria: Agentzien kanpo txostenak

Itxiera data: 2024/07/31

Hartutako neurriak

2022-23an ere jarraitu da EAEko Gizarte Hezkuntzako Batzordearen bidez (Unibertsitateak+Elkargoa), ikerketa-diagnostiko baten diseinuan gizarte hezitzaileak non eta zertan dabilzan aztertzeko. Hor hitz egingo da gizarte hezitzaileak lanean ari diren erakunde, entitate eta elkarte ezberdinekin ("colectivos de interés") kontraste ariketa hori egiteko. 2024 eta 2025 urteetan aurreikusten da ikerketa egitea.

Dekanotza Taldeak web orria eguneratu zuen eta ikasleen eskura jarri zuen informazio hori ¿Interes-taldeen gogobetetzea" atalean: <https://www.ehu.eus/eu/web/hezkuntza-filosofia-antropologia-fakultatea/kalitate-sistema>

Titulazioak:

GESOC

PEC :	RES :	MES	MOT	RET : X	MET:
-------	-------	-----	-----	---------	------

Ekintza kodea: 21-GANTRO-MET-59

4.mailako taldeetan hizkuntzaren kudeaketa eta talde kohesioaren lanketa

4.mailako taldeetan hizkuntzaren kudeaketa eta talde kohesioaren lanketa

Arduradun-postua: Coordinadores de Módulo/Curso/Minor

Jatorria: Besteak

Itxiera data: 2024/05/31

Hartutako neurriak

Laugarren mailan euskarazko eta gaztelarazko taldeak elkartzen dira, hautazko gehienak gaztelaraz direlarik. Horrek sortzen dituen egoeren aurrean, 2020-2021ean gogoeta egin da, eta zenbait proposamen adostu. Helburua da 2.mailan eta 4.maila hasieran talde biek (EUS eta CAS) lanketa-bilera bat egitea, etorkizuneko egoera batean hizkuntzen kudeaketa eta talde kohesioa errazteko. Hurrengo urteetan ikusi ahalko dugu saiakera horien eraginkortasuna edo eragina.

2024: Neurri hauen ondorioz, azken urteetan ez dugu gai honekin arazo berezirik izan eta prozesu lagungarria izan da.

Titulazioak:

GANTR

"4. Aurreko ikasturtean egindako ekintzak"

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2023/2024

3.1., Irakaskuntzaren koordinazioa eta garapena

PEC :	RES :	MES	MOT	RET :	MET: X
-------	-------	-----	-----	-------	--------

Ekintza kodea: 22-GPRIMA-MET-79

Eskola eta Curriculum moduluko DILAN proposamen berria

Ikasturte honetan 2. moduluan egiten den DILANa aldatu egin da, modulua osatzen duten irakasgaien ekarpenak zehatzagoak izan eta ikasleentzat erreala goa den lan bat gauzatzeko asmoarekin.

Arduradun-postua: Vicedecanato de Desarrollo y Responsabilidad Social

Jatorria: Besteak

Itxiera data: 2024/01/22

Hartutako neurriak

22/23 ikasturtean aurrera eraman da DILAN berria. Ondo joan da, ikaslegoa eta irakaslegoa pozik dago esperientziarekin, baina hobetzeko atalak ere badaude eta 23/24 ikasturterako horiei erreparatzea beharrezkoa da.

Titulazioak:

GPRIM

PEC :	RES :	MES	MOT	RET :	MET: X
-------	-------	-----	-----	-------	--------

Ekintza kodea: 20-HEFA-MET-22

Masterren koordinazioa

Berriki txertatu badira ere masterrak Fakultatean, areagotzen joan behar dugu haien txertaketa eta koordinazioa gainerako prozesu eta prozeduratan

Arduradun-postua: Vicedecanato de Desarrollo y Responsabilidad Social

Jatorria: Aurreko ikasturteko hobekuntza-ekintzen planetik eratorriak

Itxiera data: 2024/02/19

Hartutako neurriak

Gaur egun prozedura eta prozesuetan guztiz txertatuta daude fakultateko masterrak eta graduondokoak.

Titulazioak:

PROSE ANTISO MULED FICIV INASE

PEC : X	RES :	MES	MOT	RET :	MET: X
---------	-------	-----	-----	-------	--------

3.2., Irakaskuntzaren antolaketa (Antolaketa Akademikoa)

Ekintza kodea: 23-MPROSE-MOT-9

Cambio de idioma de asignaturas

Debido a las solicitudes recibidas en los últimos años desde diferentes departamentos se ha solicitado cambiar el idioma de impartición de las asignaturas en las especialidades Ciencias Naturales y Matemáticas, Humanidades y Ciencias Sociales, Orientación Educativa, Tecnología, Lengua y Literatura, Educación Física y Educación Artística del Máster en Formación del Profesorado que se detallan a continuación :

-502558, 502559.

-502568, 503775.

-503790, 503794, 503798, 503799, 503801.

-503805.

-503771.

-502908.

-502914, 503767.

Kultur Ekintza Akademikoak antolatu nahi ditugu HEFAn. Ekintza horien helburua izango da HEFAko ikasleei euskal hezkuntzarekin, kulturarekin eta Euskal Herriaren historiarekin lotutako tresnak eskaintzea beren jardun profesionala tokiko testuinguruan hobeto kokatu ahal izan dezaten. Horretarako, emanaldiak, hitzaldiak eta bestelako zenbait jardura (Hezkuntza Museora bisita, adibidez) antolatuko dira, ikasketen antolaketan txertatuz.
Arduradun-postua: Vicedecanato de Desarrollo y Responsabilidad Social
Jatorria:Besteak
Itxiera data: 2024/08/31
Hartutako neurriak
Dekanotza Taldearen helburua da ekintza hauek, modu sistematizatuan, urtero egitea; alegia, HEFAko titulazioetan (batzuetan behintzat) modu egituratuan antolatzea, irakasgai zehatz batzuei lotuta.
2023/2023 ikasturtean lortu dugu ekintza horiek nolabait egituratzen hastea baina hurrengo ikasturteetara begira gehiago egituratzen saiatuko gara.

Orain arte KEA deitu ditugun ekintzak IGOA proiektuaren esku-hartzeen plangintzaren barruan antolatu ditugu.

PEC :	RES :	MES	X	MOT	RET :	MET:
-------	-------	-----	---	-----	-------	------

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2023/2024

6.2., Gizarte erantzukizuna

Ekintza kodea: 21-MMULED-RET-64

Behar espezifikoaren informazioa

Desgaitasun baten ondoriozko behar espezifikoekin sar daitezkeen ikasleei zuzendutako informazioa sartu behar da, ikasle horientzako laguntza- eta aholkularitza-zerbitzuei buruzkoa, bai eta curriculum-egokitzapenen existentziari buruzkoa ere.

Arduradun-postua: Equipo Decanal

Jatorria: Agentzien kanpo txostenak

Itxiera data: 2024/07/31

Hartutako neurriak

Titulazioei Unibasq-ek egin zien gomendio hau gauzatzeko modurik egokiena zein den pentsatu eta erabaki du Dekanotza Taldeak eta horren berri eman diogu HEFAko Multimedia Sistemien Teknikariari. Web orrian aldaketak gauzatzen dituenean itxiko dugu ekintza hau.

Dekanotza Taldeak web orria eguneratu zuen eta ikasleen eskura jarri zuen informazio hori "Ikasleentzako arreta eta orientazioa" atalean: <https://www.ehu.eus/eu/web/hezkuntza-filosofia-antropologia-fakultatea/orientazioa>

Titulazioak:

MULED

PEC :	RES :	MES	MOT	RET : X	MET:
-------	-------	-----	-----	---------	------

5. Emaitzak

5.1 Prozesukako gestioaren gako emaitzak

1.- PLANGINTZA

BALORAZIOA: Lehenik eta behin aipatu behar dugu, prozesu honi dagozkion prozeduretan ez dela nabarmentzeko aldaketarik eman, ez delako beharrezkoa ikusi eta prozedura horiek ongi adierazten dutelako esparru honetan egin beharrezkoa.

Urteko Plangintzari eta kudeaketari dagokionez ez da aparteko berrikuntzarik egin. Honek adierazten du fakultatearen funtzionamendua guztiz egonkortuta dagoela eta indarrean dagoen KBBSaren baitan jarraipen egokia egiten zaiola.

Azken urteetan abiatutako bidean beste pausu batzuk eman dira bi zentroetako fusioak kudeaketan sortzen dituen beharrei modu egokian erantzun ahal izateko. Nahiz eta jakin bi eraikinetan egoteak beti eragingo dituela hainbat zailtasun gure ustez abiatutako bideari eutsi behar zaio.

Azken urteetan nabarmendu izan dugu ere Dekanotza taldean premiak ditugula behar hauei erantzuteko kide kopuruak asko baldintzatzen dituenak. Zentzu honetan, uste dugu, fakultateak dituen ezaugarriak kontutan hartuz dekanotza kideen kopurua ez dela nahikoa ditugun beharrei modu egokian erantzuteko. Hurrengo ikasturteetan araudi berria kontutan izanik pausu horiek eman behar direla uste dugu.

Bestalde, interes taldeekiko harremanaren sistematizazioa erronka bat da eta nahiz eta pausuak eman ditugun bideari eutsi beharko zaio. Ikerketa eremuan zenbait pausu eman dira baina ildo estrategiko gisa identifikatu ditugu eta zentzu horretan oraindik fakultatean egiten den ikerketarekiko lanketa sakonagoa egin behar dela uste dugu. Hala ere azpimarratu nahi dugu komunikazioaren esparruan pausu batzuk eman ditugula eta ikerketa taldeek oso balorazio positiboa egin dutela.

Aipatu behar dugu aurten martxan jarri dela HH eta LHko gradu bikoitza, arrakastaz osatu da matrikulazioa eta eskaintzak zentzua zuela baieztatu dezakegu, dena den, azpimarratu nahiko genuke irakasleen errektoradutzatik onarpen prozesu guztian trabak izan ditugula eta honek lan zama handitu duela eta gure ustez beharrik gabeko tentsioa eragin duela kudeakeetan. Bestalde aipatu nahi dugu gradu bakoitzak oso errealitate ezberdina bizi duela eta, ondorioz, Dekanotzatik edozein plangintza edo prozedura abian jartzeko kontuan hartu behar dugu gradu bakoitzaren nortasuna, eta dinamika. Honela, bere barnetik abiatuz aritu behar dugu lanean, aurrera begirako berrikuntza eta planifikazio proposamenak eraikitzean. Berrikuspen honetan aipatu nahi dugu zenbait gradutan abiatuak direla lan taldeak gradu horietan proposamen berriak eta eguneratzeak lantzeko. Espero dugu datozen ikasturteetarako horiek ere martxan egotea. Azken urteetan aipatu izan dugun moduan gradu batzuetako matrikula emaitzek ere hausnarketa bat eskatzen dute hauen plangintzaren inguruan. Hemen, batetik, iaz ere aipatu zen bezala, erdal adarren egoera daukagu, ondo aztertu eta zer egin erabakitzea eskatzen dutenak eta, bestetik, gradu batzuetan gertatzen diren ikasle mugimenduak eta matrikula zenbakiek erakusten duten errealitatea.

Masterrei dagokienean, aipatu behar dugu ikastegiaren kudeaketa sistemaren baitan dagoeneko agertzen direla baina gure ustez Kalitate Batzordean egon behar dutela eta horretarako Batzordearen araudia aldatu beharko da. Uste dugu etorkizunean lan horren emaitzak nabarrituko direla gure fakultateak graduondoko eta etengabeko formakuntza aurrera pausuak eman ditzan.

2.- IKASLEEI ARRETA ETA ORIENTAZIOA

BALORAZIOA: Orohar, prozeduretan zehar txertatutako aldaketa eta jarduerak prozesuaren helburua den ikasleen erakarpenean, arreta eta orientazioa areagotzen duela esan daiteke, beraz egindako berrikuntzak mantentzea proposatzen da.

Erakarpenera dagokionez orain arteko ekimenak mantendu eta berrien txertaketa babestuko da.

Nahiz eta matrikula prozesua ondo bideratu den ikasturte honetan, on-line matrikulazio prozedurak asko erraztuko luke matrikula garaia.

Arreta eta orientazioari dagokionez, harrera ekitaldian ikasle berriei graduak ibilbidea abiarazteko

5.1 Prozesukako gestioaren gako emaitzak

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2023/2024

beharrezko argibideak eskeini zaizkie, era zehatz eta praktikoa eta bide horretan jarraitzea proposatzen da. Ikasleen ibilbide akademikoa oztopa dezaketen beharizanen arretari dagokionez, aurrerapenak eman dira besteak beste, BAT programaren hedapenean, Entzute eta Erantzute sarearen sorkuntzan eta indarkeria matxistaren kontrako protokoloaren zabalkundeetan.

Gradu eta Master ezberdinetan lanbide orientazioa eta lan munduratzeko jarduerak ezberdinak egin dira.

3.-KOORDINAZIOA ETA IRAKASKUNTZAREN GARAPENA

BALORAZIOA: Prozesu hau osatzen duten prozeduretan alderik garrantzitsuenak izan da prozedurak egonkortzea, bereziki araudi eta ekintza zehatzak aurrera eramaten dituzten pertsonen aldetik lana gehiago finkatu eta egituratuaz, sistematikoki, Batzordeetan.

Egonkortasun horrek eragin zuzena izan du, besteak beste, GRAL eta Praktiketako dinamikak indartzen, ikasleenganako artatzea funtzionalago egin duelarik, eta honek ahalbidetu du hobekuntza arloak detektatzeko eta hobetzeko ekintzak antolatzea. Gainera, agerikoa geratu da hiru Hezkuntza Fakultateen arteko lotura estutu egin dela arduradunen arteko harremana arinduz nahiz eta bilera sistematikoak ez egin, eta horrek eragin zuzena izan duela prozesu honi dagozkion lan zehatzetan.

Masterretako emaitzak ikusita, hausnarketa prozesua abian jarri da, ikasketa batzuen kasuan, bereziki. Aukera ona izan da beste Masterretako dinamikak alderatu eta gainerako titulazioetan lortutako egonkortasunaren zutarrak ere begiz jotzekoa. Edonola ere, Masterrek eta Graduek badituzte desberdintasun handiak. Horregatik, EHUK Masterrekin zer-nola jokatu duen modu orokorrean hausnartu beharrekoa da, eskaintza zabala baita, eta matrikulazioak beheranzko joera izango duela aurreikus baitaiteke. Kontrara, EHUK Berezko Tituluen aldeko apustua egingo badu, Fakultateko eskaintza berriak daiteke, zailtasunak dituzten Master zehatz horiek Berezko Tituluen izaerara egokitu ahalko liratekeen aztertu eta eskaintza errealtate berrira moldatzeko.

4.- GIZA BALIABIDE ETA ZERBITZUEN KUDEAKETA

BALORAZIOA: Zentroko langileei dagokienez, zerbitzu zentralak kudeatzen eta prestatzen dituzte. Kafetegiko eta garbiketako zerbitzuen kontratazioa ere Leioatik egiten da. Zailtasunak ditugu mantentze-lan jakin batzuei azkar erantzuteko, ez baitago horretarako langilerik, eta egoera hori aurrekontuan islatzen da.

5.-EBALUAZIOA ETA HOBEEKUNTZA

BALORAZIOA:

Ebaluazioaren eta hobekuntzaren prozesuan, honako puntu hauek iruditzen zaizkigu garrantzitsuak balorazioan azpimarratzeko:

-Alde batetik, ebaluazioaren alderdiari dagokionez, interes taldeengandik jasotzen diren iradokizun, kexa eta erreklamazioen ebaluazioa eta Docentiaz programan parte hartzen duten HEFAko irakasleen ebaluazioa positiboak izan direla eta baditugula haiek neurtzeko adierazleak. Baina zailagoa suertatzen zaigu kalitatearen inpaktuaren eta komunikazioaren azterketa egitea, edo KBBSaren inplementazioari jarraipenaren ebaluazioa ebidentziekin adieraztea.

-Bestalde, azken bi esparru horietan hobekuntzak egiten aritu gara etengabe: alde batetik, HEFAren Ardatz Estrategikoak eta Kalitate Politika eguneratu genituenetik (2023ko urrian), haien norabidean aritu gara ekintzak diseinatzen eta inplementatzen eta, bestetik, KBBSaren inplementazioari jarraipena egiten diogunez, aldaketak egin behar ditugula ikusten dugunean, egin egiten ditugu, sistema bera egokitzen eta HEFAren errealtatera doitzen joateko.

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2023/2024

6.- KOMUNIKAZIOA ETA GIZARTE ERANTZUNKIZUNA

BALORAZIOA: Prozesu honen balorazioan honako puntu hauek nabarmenduko genituzke:

Komunikazioaren eta gizarte proiektzioaren prozedurarekin lotuta, azpimarratuko genuke, HEFAk garatzen duen komunikazio-plangintzak informazioa konpartitzearen helburuari ez ezik, garrantzia ematen diola interes talde bakoitzari iritsi dakion dagokion informazioa. Eta kanpo-komunikazioaz gain, barne-komunikazioa zaintzen saiatzen dela; bai ohiko komunikazio-kanalekin, bai aurrez aurreko komunikazioarekin. Fakultatearen webgunearen pisua handitzen saiatu gara 2023/2024an hainbat alderdi eguneratuta eta hobetuta baina, bestalde, pentsatzen aritu gara, X sare soziala ixtea eta, bere ordez, beste sare sozialen bat irekitzea. Hurrengo ikasturtean heldu beharko diogu azken puntu horri.

Gizarte erantzukizunaren prozedurarekin lotuta, azpimarratuko genuke, aurreikusita genituen hainbat ekintza garatu egin ditugula: hala nola, HIZGAI, IGOA, eta hainbat hitzarmen. Baina, bestalde, hitzarmenak aurrera ateratzeko prozedura oso luzea denez, hainbat hitzarmen itxi gabe geratu zaizkigula. Eta, aurreko ikasturteetan bezala 2023/2024an ere, gizarte erantzukizunaren inpaktua neurtzearen alderdia, duen zailtasunagatik eta sortzen dizkigun zalantzengatik, diseinatu eta garatu gabe geratu zaigula.

5.2 Tituluen emaitza nagusiak

GRADUAK

Gradu Bikoitza: Lehen Hezkuntza eta Haur Hezkuntza

BALORAZIOA: Gradu Bikoitzaren lehen ezarpen urtea arrakastatsua izan zen. Plaza guztiak bete ziren eta ikasle guztiek gaintitu zituzten irakasgai guztiak lehen ikasturtean. Graduako irakasle guztiak doktoreak ziren, beraz haien irakaskuntza zein ikerketa konpromisoa bermatuta zegoen. Ikasleen gogobetetze-inkestaren balorazioa adi egoteko kontua da, ez baitzen 4 puntura iristen. Graduaren hobekuntzarako alderdi ezberdinak proposatu dira, hala nola BAT programaren txertaketa Gradu Bikoitzean, Nazioarteko Sakontze Aipamena ezartzea, espazioen eraberritzea, edo Gradu bera ematen tradizioa duten unibertsitateetara koordinatzailearen bisita (haiengandik ikasi, zalantzak ebatzi eta gure Graduan hobekuntzak txertatzeko). Hurrengo ikasturtean zehar, hobetze alderdiak identifikatzen joan ahala, ekintza berriak proposatuko dira.

	2020/2021	2021/2022	2022/2023	2023/2024
Tituluaren okupazioa Goi mug: 100.0 Beh mug: 80.0	102.50			
Tituluaren egokitzapena Goi mug: 100.0 Beh mug: 80.0	95.12			
Errendimendu tasa Goi mug: 100.0 Beh mug: 80.0	99.78			
Efizientzia tasa (egresatuen errendimendu tasa) Goi mug: Beh mug:				
Gogobetetze maila irakaskuntzarekin Goi mug: 5.0 Beh mug: 3.5	3.90			
Sarrera ikasturtearen urtea	2016/2017	2017/2018	2018/2019	2019/2020
Graduazio tasa Goi mug: Beh mug:				
Ikasketen uzte tasa Goi mug: Beh mug:				
Año de la promoción *	2017	2018	2019	2020
Egresatuen gogobetetzea Goi mug: Beh mug:				
Enplegu tasa Goi mug: Beh mug:				

* Adierazle hauen erreferentziako biztanleria LANBIDEko inkestari erantzun dioten promozioko egresatuen kopurua da. Erantzun kopurua 5 edo gutxiago bada, datuen babesa dela eta, ez dira emaitzak ematen.

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2023/2024

Gizarte Antropologiako Gradua

BALORAZIOA: Egonkortasuna da Gizarte Antropologiaren Graduaren inguruko balorazioetan gehien agertzen den kontzeptua: alderdi positiboak iraunkor mantentzen dira eta horrek adierazten du errotutako eta sendotutako gradu bati buruz ari garela. Esaterako, irakaskuntzarekiko gogobetetze maila goi eta iraunkor mantentzen da.

Bestalde, irakaslegoaren artean azken urteetan egonkortasuna areagotzen ari da. Prozesu horretan garrantzitsua izango da oraindik ere seiurteko eta Docentiaz delakoaren bidez ebaluatutakoen kopuruak areagotzea.

Aldiz, zenbait ahultasun ere nahiko iraunkor mantentzen dira, Unibertsitatea bezalako erakunde handi eta konplexuetan aldaketak taxutzea askotan instantzia askori dagokion kontua izanik nahi baino mantsoagoa eta zailagoa izan daiteke. Esaterako, aurretik jasota genituen zenbait ekintza planei dagokienez, eta graduari egin nahi genizkion aldaketak lantzeko prozesuari dagokionez, eskumen-kontuegatik eta bestelako kanpo-baldintzegtatik zenbait aldaketa ezin izan ditugu guztiz garatu. Dena den, bide horretan egungo eta etorkizuneko praktikari begirako gogoeta baliagarriak egin ditugu, eta horretan lanean jarraitzeko batzordeak martxan daude.

Duela lau urte kanpo agentzien akreditazioaren gomendioak aintzat hartu ditugu urte guzti hauetan eta horiei eta arloan zein gradu batzordean egindako gogoeta-prozesuei esker, hobetzeko alderdi desberdinak jaso dira ekintza planetan eta horretan saiatuko gara datorren urteetan ere, indarguneak mantentzen eta hobekuntza alderdiei taxuz erreparatzen.

	2020/2021	2021/2022	2022/2023	2023/2024
Tituluaren okupazioa Goi mug:100.0 Beh mug:95.0	90.91	85.45	96.36	90.91
Tituluaren egokitzapena Goi mug:85.0 Beh mug:70.0	56.00	65.96	49.06	56.00
Errendimendu tasa Goi mug:90.0 Beh mug:75.0	75.14	76.66	77.65	82.31
Efizientzia tasa (egresatuen errendimendu tasa) Goi mug:99.0 Beh mug:90.0	85.37	92.34	94.94	92.70
Gogobetetze maila irakaskuntzarekin Goi mug:5.0 Beh mug:3.5	4.30	4.40	4.30	4.30
Sarrera ikasturtearen urtea	2016/2017	2017/2018	2018/2019	2019/2020
Graduazio tasa Goi mug:80.0 Beh mug:35.0	43.48	51.06	38.00	34.04
Ikasketen uzte tasa Goi mug:25.0 Beh mug:0.0	35.19	28.81	37.50	32.08
Año de la promoción *	2017	2018	2019	2020
Egresatuen gogobetetzea Goi mug:10.0 Beh mug:5.0	7.57	7.14	6.54	7.12
Enplegu tasa Goi mug:75.0 Beh mug:55.0	86.36	69.00	64.29	76.00

* Adierazle hauen erreferentziako biztanleria LANBIDEko inkestari erantzun dioten promozioiko egresatuen kopurua da. Erantzun kopurua 5 edo gutxiago bada, datuen babesa dela eta, ez dira emaitzak ematen.

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2023/2024

Haur Hezkuntzako Gradua

BALORAZIOA: Indarguneen ataleko azken lerroan aipatu bezala, gradu sendoa da Haur Hezkuntzako, adierazleek erakusten duten moduan.

Sendotasun hau urtez urte mantentzen da eta, gainera, adierazleen datuak altuak dira.

Era berean, graduaren egitura modularrak ere laguntzen du graduaren koordinazioa egituratzen eta sendotzen eta koordinazio

ezberdinen arteko elkarlanak ere laguntzen du honetan.

Iazko ikasturtean, abiatutako ekintzek, graduen inguruko hausnarketa sustatu eta hauetan eragiteko helburua zutenak, aurten

ere jarraipena izan dute.

Norabide honetan, GIHa moduluetan txertatzeko IKDi3 Laborategiak deialdiko ONDU kategorian aurkeztutako proiektua indarrean

dago eta bete-betean eragiten ari da gure graduaren garapenean. Honez gain, 23/24 ikasturtean martxan jarritako Gradu bikoitzak,

bere oinarri diren bi gradu sinpleetan ere eragin zuzena izango du, bai maila akademikoan eta baita beste zenbait datutan ere. Ikusi

egin beharko honek guztiak nola eragiten duen, irakaslegaien lehen aukeraketan esaterako.

Azkenik, irakaslen profila ere, geldo bada ere, sendotzen eta egonkortzen doa graduan eta graduan duten inplikazio maila ere altua da.

	2020/2021	2021/2022	2022/2023	2023/2024
Tituluaren okupazioa Goi mug:70.0 Beh mug:45.0	107.14	100.00	100.00	102.22
Tituluaren egokitzapena Goi mug:95.0 Beh mug:85.0	50.67	97.78	88.89	90.22
Errendimendu tasa Goi mug:95.0 Beh mug:90.0	93.93	93.90	94.71	95.42
Efizientzia tasa (egresatuen errendimendu tasa) Goi mug:100.0 Beh mug:90.3	99.14	99.08	96.70	99.24
Gogobetetze maila irakaskuntzarekin Goi mug:5.0 Beh mug:3.5	4.20	4.10	4.10	4.10
Sarrera ikasturtearen urtea	2016/2017	2017/2018	2018/2019	2019/2020
Graduazio tasa Goi mug:95.0 Beh mug:80.0	91.53	90.57	84.13	81.36
Ikasketen uzte tasa Goi mug:12.27 Beh mug:0.0	7.61	12.37	8.49	4.12
Año de la promoción *	2017	2018	2019	2020
Egresatuen gogobetetzea Goi mug:10.0 Beh mug:5.0	6.91	6.80	6.69	7.28
Enplegu tasa Goi mug:80.0 Beh mug:60.0	76.27	70.40	63.64	82.89

* Adierazle hauen erreferentziako biztanleria LANBIDEko inkestari erantzun dioten promozioiko egresatuen kopurua da. Erantzun kopurua 5 edo gutxiago bada, datuen babesa dela eta, ez dira emaitzak ematen.

Lehen Hezkuntzako Gradua

BALORAZIOA: Graduaren garapenari dagokionez ondo funtzionatzen duten ikasketak dira, bai plaza kopurua betetzen delako eta baita ikasleek egiten duten balorazioa edo duten asebetetzea graduarekiko mantendu egiten delako 4 puntu inguruan. Irakasle taldearen konpromisoa bai irakaskuntzan eta ikerketan nabaria da, Ikusi besterik ez dago sexenio kopuruaren igoera babaria azken urteekin konparatuta eta baita doktore diren irakasleen zenbakiak igo egiten direlako.

Laneratzeari dagokionez 2020ko datuen arabera gauzak pixka bat hobetu direla ikusten da 2020 datuen arabera. Langabezi egoerak zertxobait jaitsi dira bai gizonezko baita emakumezkoen artean. Egoera hau hezkuntza sailak egiten dituen oposaketa deialdien arabera izaten da. Momentuz mantendu egiten dira eta bermatzen ari da aldaketa generazionala, baina urte guztiak ez dira berdinak eta aldea egon daiteke urte batetik bestera. Aurten HH/LHko gradu bikoitza eskaintzen hasi da eta horrek ikasle kopurua murriztea ekarri du LH graduan, ikusiko da urte gutxitan horrek nolako eragina izango duen laneratzean.

Graduaren hobekuntzarako ekintza desberdinak proposatzen jarraitzen dugu, irakaskuntzari begira eta orokorrean dauden beharrei erantzun ahal izateko ekintza batzuk zehazten ari dira ekintzen zerrenda kontsultatzen bada. Aurten adibidez honako ekintzak burutu dira:

- Practicum astea: praktikaldia hasi aurretik erakundeen aurkezpen eta ikasleetaz espero dena konpartitzea. Ekintza hau berreskuratu egin den zerbait izan da.
- IrakasleGaiaren Ohartze eta Ahalduentze soziolinguistikorako proiektua (24/25 ikasturtean gauzatzeko). Hizkuntzaren erabileraren kezka irakasgai guztien gisa bideratu nahi duen proiektu bat ere jasotzen da.
- LHn nazioarteko sakontzeko aipamena eskuratzea lortu da, baita nazioartekotasun aitortpena ere. Eskaera hau hurrengo promozioetarako ere eskaintzeko asmoa dago eta HH eta GBean proposamena aztertzea.

	2020/2021	2021/2022	2022/2023	2023/2024
Tituluaren okupazioa Goi mug:100.0 Beh mug:90.0	110.00	98.33	97.78	98.33
Tituluaren egokitzapena Goi mug:95.0 Beh mug:80.0	54.55	82.49	80.11	86.44
Errendimendu tasa Goi mug:95.0 Beh mug:90.0	94.07	92.76	93.47	93.80
Efizientzia tasa (egresatuen errendimendu tasa) Goi mug:100.0 Beh mug:90.0	98.16	97.71	97.81	95.98
Gogobetetze maila irakaskuntzarekin Goi mug:5.0 Beh mug:3.5	4.10	4.20	4.20	4.10
Sarrera ikasturtearen urtea	2016/2017	2017/2018	2018/2019	2019/2020
Graduazio tasa Goi mug:95.0 Beh mug:80.0	76.19	89.51	85.80	84.47
Ikasketen uzte tasa Goi mug:22.05 Beh mug:0.0	14.74	7.18	7.07	4.79
Año de la promoción *	2017	2018	2019	2020
Egresatuen gogobetetzea Goi mug:10.0 Beh mug:5.0	6.58	6.58	6.71	6.46
Enplegu tasa Goi mug:80.0 Beh mug:60.0	75.81	69.20	76.42	84.92

* Adierazle hauen erreferentziako biztanleria LANBIDEko inkestari erantzun dioten promozioeko egresatuen kopurua da. Erantzun kopurua 5 edo gutxiago bada, datuen babesa dela eta, ez dira emaitzak ematen.

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2023/2024

Gizarte Hezkuntzako Gradua

BALORAZIOA: Graduaren balorazioa orokorrean ona da:

Eskaintzen den plaza kopurua betetzen da (80), gogobetetze maila irakaskuntzarekin ona da (4.2) eta laneratze datuak oso onak dira: enplegu tasa 91.84 eta horietatik goi-mailako formazioa eskatzen duten enpleguetan (enplegu bideratua) daude gainera gehienak (93.33).

Gradua berritzeko eta hobetzeko agian pausoak emango dira hurrengo ikasturteetan, Espainia mailan prestatzen ari den Gizarte Hezkuntzako Liburu Zuri berria izan daitekeelarik horretarako prozesu garrantzitsua.

	2020/2021	2021/2022	2022/2023	2023/2024
Tituluaren okupazioa Goi mug:100.0 Beh mug:95.0	92.50	95.00	100.00	105.00
Tituluaren egokitzapena Goi mug:85.0 Beh mug:70.0	74.32	67.11	68.75	73.81
Errendimendu tasa Goi mug:95.0 Beh mug:90.0	90.69	92.61	92.15	92.94
Efizientzia tasa (egresatuen errendimendu tasa) Goi mug:99.0 Beh mug:90.0	96.73	97.34	97.35	97.90
Gogobetetze maila irakaskuntzarekin Goi mug:5.0 Beh mug:3.5	4.20	4.20	4.20	4.10
Sarrera ikasturtearen urtea	2016/2017	2017/2018	2018/2019	2019/2020
Graduazio tasa Goi mug:90.0 Beh mug:70.0	75.00	77.61	69.70	72.22
Ikasketen uzte tasa Goi mug:10.0 Beh mug:0.0	6.59	15.38	14.74	14.58
Año de la promoción *	2017	2018	2019	2020
Egresatuen gogobetetzea Goi mug:10.0 Beh mug:5.0	6.62	6.63	6.80	6.94
Enplegu tasa Goi mug:80.0 Beh mug:60.0	91.84	85.20	90.00	87.27

* Adierazle hauen erreferentziako biztanleria LANBIDEko inkestari erantzun dioten promozioiko egresatuen kopurua da. Erantzun kopurua 5 edo gutxiago bada, datuen babesa dela eta, ez dira emaitzak ematen.

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2023/2024

Filosofiako Gradua

BALORAZIOA: Gure ustez, 2022/2023 ikasturtea baloratzerakoan kontuan hartu beharreko zenbait gai daude. Lehenik eta behin, oraindik gertu ditugu COVID-19aren pandemiak utzi dituen ondorioak. Uste dugu denbora gehiago igaro behar dela adierazle batzuk ondo baloratu ahal izateko, batez ere mugikortasunarekin lotutakoak. Hala ere, badira hobetu daitezkeen beste adierazle batzuk. Batez ere, lehen mailako gaztelaniazko ikasle berrien matrikula eskasa edota ikasketen uzte tasa altua. Filosofiako Graduak datu horiek azaltzen dituzten berezitasun batzuk baditu ere, eta adierazle horiek azken ikasturteetan hobetu badira ere, komenigarria litzateke gogoeta egitea datu horiek hobetzen saiatzeko. Zentzu horretan, Filosofiako graduako arlo guztietako irakasleek osatutako batzorde bat graduaren hobekuntza-puntu guztiak identifikatzen ari da, datozen urteetarako Filosofiako gradu berri bat berriz diseinatzeko asmoz. Era berean, gomendagarria litzateke txosten honetan proposatu diren hobekuntza-proposamenak lantzea. Nolanahi ere, txosten honetan jasotako datuak kontutan edukita, balorazio orokorra oso positiboa da gure aldetik.

	2020/2021	2021/2022	2022/2023	2023/2024
Tituluaren okupazioa Goi mug:100.0 Beh mug:95.0	96.36	100.00	96.36	125.45
Tituluaren egokitzapena Goi mug:85.0 Beh mug:70.0	81.13	94.55	92.45	86.96
Errendimendu tasa Goi mug:85.0 Beh mug:70.0	72.03	74.72	71.53	78.34
Efizientzia tasa (egresatuen errendimendu tasa) Goi mug:99.0 Beh mug:90.0	92.68	92.36	93.21	88.32
Gogobetetze maila irakaskuntzarekin Goi mug:5.0 Beh mug:3.5	4.30	4.20	4.20	4.20
Sarrera ikasturtearen urtea	2016/2017	2017/2018	2018/2019	2019/2020
Graduazio tasa Goi mug:80.0 Beh mug:30.0	51.72	43.18	29.79	30.61
Ikasketen uzte tasa Goi mug:30.0 Beh mug:0.0	25.42	33.33	36.54	42.11
Año de la promoción *	2017	2018	2019	2020
Egresatuen gogobetetzea Goi mug:10.0 Beh mug:5.0	6.86	6.90	7.00	7.12
Enplegu tasa Goi mug:75.0 Beh mug:55.0	61.90	80.00	70.37	74.07

* Adierazle hauen erreferentziako biztanleria LANBIDEko inkestari erantzun dioten promozioiko egresatuen kopurua da. Erantzun kopurua 5 edo gutxiago bada, datuen babesa dela eta, ez dira emaitzak ematen.

Pedagogiako Gradua

BALORAZIOA: Pedagogia Graduak datuak egonkor mantentzen dira urtetik urtera, eta horrek sendotasuna ematen dio tituluari. Azkenean graduak bere funtzioa txukun ari dela betetzen ikus daiteke; plazak betetzen dira eta populazio jakin bati zuzentzen zaio (batez ere batxilergoko ikaslea jasotzen da, gehiena euskalduna eta emakumeak). Adierazten den ekoizpena altua da, epe mugatuan gehiengoko ikasleek titulazioa lortzen dute eta, gainera, laneratzeari buruzko datuak ere positiboak dira. Hala ere, hobetzeko beti dago eta gradua proposamen berriak jasotzeko beti ere irekita dago (unibertsitatetik eskaintzen diren programak, ikasle eta irakasleen eskaera irekietatik, ikerketa lanetatik eratorritako proposamenak: GrALak, MALak, ...). 2023/24 ikasturtean, Pedagogia graduaren errebisioaren inguruko bi GrAL defendatu dira; "Eraldaketa soziala Euskal Herriko Unibertsitateko Pedagogia Graduan. Ikasleen iritzia" eta "Pedagogia graduak egitura modularra hobetzeko ikerketa: irakasle taldearen prestakuntza eginkizuna ardatz" izenburupean.

Ikasleek irakaskuntzarekin duten asebetetze maila altua da, eta hein batean horrek bertan diharduten irakasleak ongi prestatuak daudela aipatu beharra dago. Hala ere, irakasleen egonkortasuna auzian dago, eta eurak duten lan-zama kontuan edukita zaila da, solasaldirako, kontrasterako eta hausnarketarako guneak indartzea. Izan ere jarraipen txosten honetan jasotzen diren alderdi askok halako aldeko testuinguru bat beharko lukete izan (ikasgaien arteko loturak eraikitze, edukien planteamendu egonkor eta sendoa plazaratzeko, lan-munduarekin loturak egiteko, ...). Baina errealitateak esaten digu denbora tarteak zehaztea eta gai hauek hartu behar diren lasaitasunarekin hartzea zaila izaten dela. Hala ere, gradu barneko koordinazio modalitate ezberdinak (modulukoak, practicum-ekoak eta titulazioko bilerak), gune aproposak dira lankidetzara, elkarulermena eta hausnarketa sustatzeko.

Oro har, Pedagogia gradua, eta orokorrean profesioa, gizartearen duen papera eta lan-eremuak gehiago ikusarazi eta zabaltzeko behar ditugu; Pedagogia izan dadin ikasleen lehenengo ikasketa aukera. Horrekin lotuta, lehenengo mailako ikasleen uzte tasari erreparatzen jarraitu behar dugu, eta 4. Mailako ikasleen enplegu tasa handitzen eta enplegu bideratua indartzen lagundu behar dugu ere.

	2020/2021	2021/2022	2022/2023	2023/2024
Tituluaren okupazioa Goi mug:100.0 Beh mug:90.0	98.18	100.00	98.18	92.73
Tituluaren egokitzapena Goi mug:75.0 Beh mug:65.0	33.33	41.82	50.00	50.98
Errendimendu tasa Goi mug:95.0 Beh mug:90.0	92.05	90.94	91.97	92.87
Efizientzia tasa (egresatuen errendimendu tasa) Goi mug:99.0 Beh mug:90.0	97.30	96.80	96.79	98.75
Gogobetetze maila irakaskuntzarekin Goi mug:5.0 Beh mug:3.5	4.20	4.20	4.30	4.20
Sarrera ikasturtearen urtea	2016/2017	2017/2018	2018/2019	2019/2020
Graduazio tasa Goi mug:90.0 Beh mug:70.0	67.39	70.59	72.73	66.67
Ikasketen uzte tasa Goi mug:25.0 Beh mug:0.0	15.87	22.73	14.29	31.67
Año de la promoción *	2017	2018	2019	2020
Egresatuen gogobetetzea Goi mug:10.0 Beh mug:5.0	6.78	6.92	7.40	7.03
Enplegu tasa Goi mug:80.0 Beh mug:60.0	75.00	89.20	60.00	77.42

* Adierazle hauen erreferentziako biztanleria LANBIDEko inkestari erantzun dioten promozioeko egresatuen kopurua da. Erantzun kopurua 5 edo gutxiago bada, datuen babesa dela eta, ez dira emaitzak ematen.

MASTERRAK

Gizarte Antropologia Unibertsitate Masterra

BALORAZIOA: Plaza eskaintza eta eskaeran nolabaiteko oreka lortu dugu pasa den urteetako aldaketak direla medio. Bi ikasturteetan banatzen den 60 ECTSeko masterra izaki, ikasle orok denbora partzialean egiten ditu ikasketak. Masterrak hiru hizkuntza maneiatzen ditu: gaztelania, euskara eta ingelesa. Azpimarratzekoa da euskarazko irakaskuntza masterreko edizio guztietan bermatzen dugula, zailtasunak zailtasun, eta euskarazko MAL kopuru oso altua. Ezinbestekoa zaigu eskaintza hori ikasle guztiengana modu egokian helarazteko proposamen eta baliabideak arakatzen jarraitzea, ikasleen borondate eta prestutasunaz harago. Masterrak Latinoamerikako eskari altua dauka eta erakargarria zaie hango ikasleei eta orokorrean ekarpen aberatsa ematen diote taldeari. Aipatzekoa da ahalegin berezia egin dugula Batzorde akademikotik masterra amaitu gabe zuten ikasleek amai zezaten eta ekintzak emaitza positiboa izan du. Azkenik, beka lortzeko ikasleek zailtasunak adierazi dituzte, denbora partzialeko masterra izanda, batzuetan urte bakar batean, bestetan inongo bekarik lortzeko aukera ez dute izan eta.

Mugikortasuna da gure masterrak momentu honetan duen erronka nagusienetakoa, masterraren hasierako planteamenduan dagoelako eta ikasleek ere interes berezia adierazi dutelako. 2022-23an hasitako bidea zabaltzen jarraitzen dugu. Outgoing mugikortasun programa bidez, bi ikasle mugikortasuna egin ahal izan zuten Erasmus programaren bitartez 2023-24 kurtsoan, Ljubljana unibertsitatean eta datuetan islatzen ez bada ere, graduako zenbait modulu hartu baitzituen, Milango Università Estaduale di Milango ikasle bat jaso genuen ere kurtso honetan. Antropologia masterraren ekimenez, 2022-23an unibertsitate horrekin abian jarri genuen Masterreko hitzarmena, Antropologiarako ez ezik Fakultateak Filosofiara ere zabaldu zuena, bai eta bi titulazioetako graduatar. Ikasleen aldetik interesa handia dagoen arren, tamalez, unibertsitate barruko antolaketan informazio kanaletan arazoak egon dira aurten. Arretaz egingo diogu jarraipena etorkizunean. Antropologiarentzat ezinbesteko osagaia da beste testuinguru, kultura eta kultura akademikoen ezagutza.

Gure irakasleriaren parte handi bat antropologia feministan eta genero ikasketen arloan aditua da eta ezagutza arlo hauen ezaugarria da feminizazioa. Halaz ere, generoen arteko desoreka gutxitzen ari da. UPV/EHU seiurteko/kredituei dagokienez, irakasle doktore berrien egonkortze prozesuak egoera koiunturaltzat hartzera garamatza eta aurtengo deialdian irakasle doktore multzo batek lehen seiurtekoa eskatu duela jakinik, joerak gora egingo duelakoan gaude. Masterreko edizio bakoitzean nazioarteko irakasle gonbidatu kopuru esanguratsua dugu, horiek seiurtekoek aparteko beste balorazio sistema batzuen bidez jasotzen dute euren jardun profesionalaren aitortza. Azpimarratzekoa da 2023-24ean masterrean nazioarteko gonbidatu izan genituen irakasleen maila, eta gure ikasleek Oxfordeko Unibertsitatekoek jaso zuten ikasturte berean izan zuten 2023 Marett Memorial lecture zuzenean entzuteko aukera.

Masterreko arduradunak esfortzu nabaria egiten ari gara borondatezko praktikak bultzatzeko, lan merkaturako gerturatze interesgarri bat delakoan. Duela bi ikasturte hasitako joerarekin jarraitzen dugu eta 2023-24ean ere izan ditugu ikasleak borondatezko praktikak burutzen. Webean honen inguruko informazio gaurkotua izatea funtsezkoa da. Aukera hauek bultzatzearen premia ikusten dugu, bai ikasleek adierazi digutelako eta bai masterraren hobetze elementu garrantzitsutzat dugulako. Esfortzu hau modu bateratu batean egiten ari gara Antropologiako Graduarekin batera eta UPV/EHUko Gizarte Antropologiako arloarekin batera, non duela urte batzuk "profesional irteeretan" eta baita Estatu espainiar mailan abian den "antropologiaren mapa profesionalaren" eraketan lan handia egiten ari den, mundu profesional eta eragile sozial ezberdinekin elkarlanean.

	2020/2021	2021/2022	2022/2023	2023/2024
Tituluaren okupazioa Goi mug: Beh mug:	40.00	45.00	50.00	85.00
Tituluaren egokitzapena Goi mug: Beh mug:	80.00	100.00	80.00	100.00
Errendimendu tasa Goi mug: Beh mug:	84.38	97.40	97.87	84.44
Efizientzia tasa (egresatuen errendimendu tasa) Goi mug: Beh mug:	90.91	93.75	100.00	100.00

5.2 Tituluen emaitza nagusiak

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
 Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2023/2024

Gogobetetze maila irakaskuntzarekin Goi mug: Beh mug:	4.80	4.50	4.40	4.80
Sarrera ikasturtearen datuak	2018/2019	2019/2020	2020/2021	2021/2022
Ikasketen uzte tasa 1. urtean (CURSA) Goi mug: Beh mug:	27.27	0.00	20.00	11.11
Sarrera ikasturtearen datuak	2019/2020	2020/2021	2021/2022	2022/2023
Graduazio tasa Goi mug: Beh mug:		0.00	0.00	0.00
Sustapenaren urtea *	2017	2018	2019	2020
Egresatuen gogobetetzea Goi mug: Beh mug:	7.83	7.50	7.75	6.50
Enplegu tasa Goi mug: Beh mug:	83.33	83.33	75.00	

* Adierazle hauen erreferentziako biztanleria LANBIDEko inkestari erantzun dioten promozioko egresatuen kopurua da. Erantzun kopurua 5 edo gutxiago bada, datuen babesa dela eta, ez dira emaitzak ematen.

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2023/2024

Filosofia, Zientzia eta Balioak Unibertsitate Masterra

BALORAZIOA:

	2020/2021	2021/2022	2022/2023	2023/2024
Tituluaren okupazioa Goi mug: Beh mug:	81.82	40.91	36.36	0.00
Tituluaren egokitzapena Goi mug: Beh mug:	77.78	100.00	87.50	0.00
Errendimendu tasa Goi mug: Beh mug:	84.12	77.21	68.87	45.57
Efizientzia tasa (egresatuen errendimendu tasa) Goi mug: Beh mug:	100.00	86.96	92.23	74.07
Gogobetetze maila irakaskuntzarekin Goi mug: Beh mug:	4.30	5.00	4.30	4.80
Sarrera ikasturtearen datuak	2018/2019	2019/2020	2020/2021	2021/2022
Ikasketen uzte tasa 1. urtean (CURSA) Goi mug: Beh mug:	25.00	14.29	11.11	0.00
Sarrera ikasturtearen datuak	2019/2020	2020/2021	2021/2022	2022/2023
Graduazio tasa Goi mug: Beh mug:	81.82	88.24	50.00	75.00
Sustapenaren urtea *	2017	2018	2019	2020
Egresatuen gogobetetzea Goi mug: Beh mug:	7.67	8.00	6.75	6.80
Enplegu tasa Goi mug: Beh mug:			60.00	88.90

* Adierazle hauen erreferentziako biztanleria LANBIDEko inkestari erantzun dioten promozioko egresatuen kopurua da. Erantzun kopurua 5 edo gutxiago bada, datuen babesa dela eta, ez dira emaitzak ematen.

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2023/2024

Filosofia: Zientzia, Gizartea, Teknologia Unibertsitate Masterra

BALORAZIOA: Siendo el primer año de implantación del nuevo máster, con las dificultades que ello conlleva, de actualización del profesorado, calendarios, asignaturas, nombre y promoción del mismo, valoramos muy positivamente el arranque del máster. Desgraciadamente, el tipo de alumnado que accedió a un máster sin garantías de oficialidad no ha logrado completar el año académico con la dedicación requerida y eso se ha traducido en una baja cantidad de matrículas completas y de graduaciones en el máster. Sin embargo, podemos decir que tanto las asignaturas, como el formato innovador del nuevo máster (menos presencialidad, asignaturas más pequeñas, pero intensas, foco en los problemas contemporáneos, etc.) se han consolidado y podemos decir que hemos inaugurado un nuevo máster exitosamente. Un nuevo máster que viene cubrir un puente importante entre el grado y los programas de doctorado en filosofía que ofrece la UPV/EHU.

	2020/2021	2021/2022	2022/2023	2023/2024
Tituluaren okupazioa Goi mug: Beh mug:				50.00
Tituluaren egokitzapena Goi mug: Beh mug:				100.00
Errendimendu tasa Goi mug: Beh mug:				43.90
Efizientzia tasa (egresatuen errendimendu tasa) Goi mug: Beh mug:				
Gogobetetze maila irakaskuntzarekin Goi mug: Beh mug:				4.70
Sarrera ikasturtearen datuak	2018/2019	2019/2020	2020/2021	2021/2022
Ikasketen uzte tasa 1. urtean (CURSA) Goi mug: Beh mug:				
Sarrera ikasturtearen datuak	2019/2020	2020/2021	2021/2022	2022/2023
Graduazio tasa Goi mug: Beh mug:				
Sustapenaren urtea *	2017	2018	2019	2020
Egresatuen gogobetetzea Goi mug: Beh mug:				
Enplegu tasa Goi mug: Beh mug:				

* Adierazle hauen erreferentziako biztanleria LANBIDEko inkestari erantzun dioten promozioko egresatuen kopurua da. Erantzun kopurua 5 edo gutxiago bada, datuen babesa dela eta, ez dira emaitzak ematen.

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2023/2024

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntzaren Unibertsitate Masterra

BALORAZIOA: Masterreko kudeaketa prozesuak antolatzen eta hobetzen aritu gara. Masterrean irakasle berriak sartu dira. Sartutako irakasle hauek Masterrean eskolak emateko eskakizunak betetzen dituzte. Irakasle taldearen bosturteko eta seiurteko kopurua handitu da. Master honen indarguneek berdintsuak jarraitzen dute. Izan ere, Masterrean sartzeko eskaera asko jasotzen ditugu, errendimendu eta arrakasta tasak oso altuak dira eta irakaskuntzarekiko ikasleek duten asebetetze maila oso altua da. Hautazko

irakasgaien eskaintza berrikusteko prozesua martxan jarraitzen du. Ikastetxeetako arduradunekin lan egiten jarraituko dugu eta modu horretan espero dugu hobeto ezagutzea irakasleen errealitatea. Helburua, irakasgaiak errealitate horretara egokitzea eta egresatuen asebetetze maila denborarekin igotzen joatea da.

Horren harira, prestakuntza DUALA jarri genuen martxan lehenbiziko aldiz. Natur Zientziak eta Matematika eta Teknologia espezialitateko 7 ikaslek prestakuntza hau aurrera eramane zuten ikasturtean zehar fakultatean eta, aldi berean, formakuntza ikastetxeetan. Prestakuntza honen helburu nagusia etorkizuneko hezitzaileak izango diren horien hasierako prestakuntzaren baitan, formakuntza dualaren inplementazioa eta ebaluazioa burutzea da; zer esanik ez, ikasleen hasierako prestakuntza hobetzeko eta, ondorioz, masterraren beraren hezkuntza kalitatea hobetzeko.

Nazioartekotzea mantendu dugu ikasturte honetan ere. Enlight barruan, gure 6 ikaslek Estonian egindako Teaching and Learning Conferencen parte hartu zuten eta beste 6 ikaslek ERASMUS BIP+ean.

Bestetik, bigarren urtez Masterreko modulu generikoan diziplinarteko lana aurrera eramane eta ebaluatu egin da.

	2020/2021	2021/2022	2022/2023	2023/2024
Tituluaren okupazioa Goi mug: Beh mug:	89.77	94.32	99.62	101.89
Tituluaren egokitzapena Goi mug: Beh mug:	97.05	99.20	99.24	100.00
Errendimendu tasa Goi mug: Beh mug:	97.03	94.72	96.20	94.65
Efizientzia tasa (egresatuen errendimendu tasa) Goi mug: Beh mug:	100.00	97.84	96.64	97.49
Gogobetetze maila irakaskuntzarekin Goi mug: Beh mug:	4.00	4.00	4.00	4.00
Sarrera ikasturtearen datuak	2018/2019	2019/2020	2020/2021	2021/2022
Ikasketen uzte tasa 1. urtean (CURSA) Goi mug: Beh mug:	2.56	1.28	1.65	2.81
Sarrera ikasturtearen datuak	2019/2020	2020/2021	2021/2022	2022/2023
Graduazio tasa Goi mug: Beh mug:	95.58	94.39	91.14	94.92
Sustapenaren urtea *	2017	2018	2019	2020
Egresatuen gogobetetzea Goi mug: Beh mug:	6.41	6.38	6.62	6.50
Enplegu tasa Goi mug: Beh mug:	94.81	90.32	92.09	94.60

* Adierazle hauen erreferentziako biztanleria LANBIDEko inkestari erantzun dioten promozioko egresatuen kopurua da. Erantzun kopurua 5 edo gutxiago bada, datuen babesa dela eta, ez dira emaitzak ematen.

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2023/2024

Gizarte eta Hezkuntzako Eremuen Ikerketa Unibertsitate Masterra

BALORAZIOA: Los indicadores generales del máster se mantienen con ligeras variaciones. La valoración de los y las estudiantes es muy positiva y subrayan el nivel de exigencia pero a su vez la atención personalizada y cuidada que reciben tanto del profesorado como de la comisión académica y de la secretaría administrativa. El profesorado a su vez, va consolidándose en medio de un proceso de relevo generacional que ha afectado a varias asignaturas, y va ganando madurez académica que se evidencia en términos de sexenios y evaluaciones del programa Docentiaz. La línea de trabajo prioritaria sigue siendo la captación de alumnado, adecuado para un máster de estas características. Para ello se han puesto en marcha estrategias tanto desde el vicerrectorado como desde la comisión del máster e incluso entre el profesorado que comienza a orientar al alumnado desde el cuarto curso de los grados, lo cual ha empezado a dar lagunos resultados aunque hay que consolidarlo en el tiempo.

	2020/2021	2021/2022	2022/2023	2023/2024
Tituluaren okupazioa Goi mug: Beh mug:	63.33	40.00	43.33	60.00
Tituluaren egokitzapena Goi mug: Beh mug:	84.21	83.33	84.62	100.00
Errendimendu tasa Goi mug: Beh mug:	96.95	89.29	68.85	76.26
Efizientzia tasa (egresatuen errendimendu tasa) Goi mug: Beh mug:	96.32	98.36	100.00	96.77
Gogobetetze maila irakaskuntzarekin Goi mug: Beh mug:	4.40	4.20	4.40	4.30
Sarrera ikasturtearen datuak	2018/2019	2019/2020	2020/2021	2021/2022
Ikasketen uzte tasa 1. urtean (CURSA) Goi mug: Beh mug:	45.45	33.33	5.26	16.67
Sarrera ikasturtearen datuak	2019/2020	2020/2021	2021/2022	2022/2023
Graduazio tasa Goi mug: Beh mug:	58.33	94.12	81.82	45.45
Sustapenaren urtea *	2017	2018	2019	2020
Egresatuen gogobetetzea Goi mug: Beh mug:	7.60	7.62	7.50	9.00
Enplegu tasa Goi mug: Beh mug:	100.00	87.50	75.00	

* Adierazle hauen erreferentziako biztanleria LANBIDEko inkestari erantzun dioten promozioko egresatuen kopurua da. Erantzun kopurua 5 edo gutxiago bada, datuen babesa dela eta, ez dira emaitzak ematen.

Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostena

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Facultad de Educación, Filosofía y Antropología

Ikasturtea 2023/2024

Eleaniztasuna eta Hezkuntza Unibertsitate Masterra

BALORAZIOA: Eleaniztasuna eta Hezkuntza masterraren matrikulazio tasa jaitsi egin da eta hor dago gure erronka handiena, ikasleak erakartzea eta betiko matrikulazio zenbakietara itzultzea. Ditugun ikasleen artean arrakasta tasa eta gogobetetze maila oso altua da, beraz masterrera matrikulatzen diren ikasleak oso pozik daude masterrean eskaintzen diren irakasgai eta baliabideekin. Bertan diharduten irakasleak ongi prestatuak daude beharrezko akreditazioarekin eta DOCENTIAZ programan parte hartu dute (14 irakasleetatik 10) baina oraindik trantsizio momentu batean aurkitzen gara. Horregatik, datozen urteetan, plantillaren egonkortasuna handiagoa izango dela eta seiurteko eta bosturteko kopurua handituko dela aurreikusten da.

	2020/2021	2021/2022	2022/2023	2023/2024
Tituluaren okupazioa Goi mug: Beh mug:	68.00	68.00	32.00	32.00
Tituluaren egokitzapena Goi mug: Beh mug:	82.35	94.12	100.00	100.00
Errendimendu tasa Goi mug: Beh mug:	92.57	94.68	70.24	88.16
Efizientzia tasa (egresatuen errendimendu tasa) Goi mug: Beh mug:	98.46	97.54	90.91	93.02
Gogobetetze maila irakaskuntzarekin Goi mug: Beh mug:	4.10	4.30	4.50	4.50
Sarrera ikasturtearen datuak	2018/2019	2019/2020	2020/2021	2021/2022
Ikasketen uzte tasa 1. urtean (CURSA) Goi mug: Beh mug:	5.88	7.14	0.00	11.76
Sarrera ikasturtearen datuak	2019/2020	2020/2021	2021/2022	2022/2023
Graduazio tasa Goi mug: Beh mug:	100.00	94.12	92.86	66.67
Sustapenaren urtea *	2017	2018	2019	2020
Egresatuen gogobetetzea Goi mug: Beh mug:	8.15	8.83	7.57	7.70
Enplegu tasa Goi mug: Beh mug:	100.00	83.33	100.00	85.70

* Adierazle hauen erreferentziako biztanleria LANBIDEko inkestari erantzun dioten promozioko egresatuen kopurua da. Erantzun kopurua 5 edo gutxiago bada, datuen babesa dela eta, ez dira emaitzak ematen.

6. Europar Unibertsitateen ildo eta estandarren jarraipena

1. DIMENTSIOA: KALITATE POLITIKA ETA HELBURUAK

ikastegiak jarduera batzuk definitzen ditu eta aldiro berrikusten ditu, kalitate kultura bat garatzeko, kasuan kasuko interes taldeak inplikatur. Bere kalitate politikan eta unibertsitatearen helburu estrategikoetan oinarrituta egongo dira.

PROZEDURAK:

- | | |
|--|---|
| 1.1., Plangintza estrategikoa | 1.2., Urteko plangintza eta kudeaketa |
| 1.3., Dekanotza Taldearen aldaketa | 5.1., Titulazioen eta Kudeaketa Sistemaren ebaluazioa eta |
| 5.4., Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren (KBBS) ezarpenaren | 6.1., Komunikazioa eta gizarte proiektzioa |

2. DIMENTSIOA. PROGRAMEN DISEINUAREN KUDEAKETA

ikastegiak baditu bere gradu, master eta doktorego programak diseinatzeko, onartzeko eta aldiro akreditatzeko prozedura batzuk, eta bermatzen du interes taldeek haietan parte hartzea, bereziki, ikasleek. Horri esker, ikastegiak bere prestakuntza eskaintza mantentzen eta eguneratzen du.

